

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Euskal Irrati Telebista
Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa
(EITB) eta mendeko diren sozietateak**

**Ente Público de Derecho Privado
Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca
(EITB) y sus sociedades dependientes**

2009





LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II. IRITZIA	8
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia.....	8
II.1.1 Ondasun, hornigai eta zerbitzuen erosketa.....	8
II.1.2 Langileen kontratazioa.....	8
II.1.2.1 Aldi baterako lan kontratudun langileria.....	9
II.2 Urteko kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMARI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	11
III.1 Kontratazioa.....	11
III.1.1 Arautze harmonizatuari lotutako kontratuak.....	11
III.1.2 Arautze harmonizatuari lotu gabeko kontratuak.....	11
III.2 Langileria.....	12
III.2.1 Burutzak.....	12
III.2.2 Ardura bereziko plusa.....	13
III.2.3 Goragoko mailako plusa.....	13
III.2.4 Helburuak betetzeagatiko ordainsari aldakorra.....	13
III.2.5 Gauzazko ordainsariak.....	14
III.2.6 Merkataritzako kontratuak.....	14
IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA	15
IV.1 EITBren eta Taldeko Sozietateen kontu bateratuak.....	15
IV.2 EITBren eta Taldeko Sozietateen kontu banakoak.....	17
IV.3 EITBren eta Taldeko Sozietateen Aurrekontuen Likidazioa.....	21
ALEGAZIOAK	23
BOTO PARTIKULARRA	55
ABREVIATURAS	63
I. INTRODUCCIÓN	65
II. OPINIÓN	66
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de la legalidad.....	66
II.1.1 Adquisición de bienes, suministros y servicios.....	66
II.1.2 Contratación de personal.....	66
II.1.2.1 Personal Laboral Temporal.....	67
II.2 Opinión sobre las cuentas anuales.....	67




III. CONSIDERACIONES SOBRE EL SISTEMA DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	69
III.1 Contratación.....	69
III.1.1 Contratos sujetos a regulación armonizada.....	69
III.1.2 Contratos no sujetos a regulación armonizada.....	69
III.2 Personal.....	70
III.2.1 Jefaturas	70
III.2.2 Plus de responsabilidad especial.....	71
III.2.3 Plus de superior categoría.....	71
III.2.4 Retribución variable por cumplimiento de objetivos.....	72
III.2.5 Retribuciones en especie	72
III.2.6 Contratos mercantiles	72
IV. CUENTAS ANUALES Y LIQUIDACIÓN DE PRESUPUESTOS	73
IV.1 Consolidadas de EITB y Sociedades del Grupo	73
IV.2 Individuales de EITB y Sociedades del Grupo.....	75
IV.3 Liquidación de Presupuestos de EITB y Sociedades del Grupo.....	79
ANEXOS	81
A.1 Naturaleza y normativa aplicable	81
A.2 Gastos de personal y plantillas.....	82
A.3 Producción.....	83
A.4 Contratación.....	83
ALEGACIONES	87
VOTO PARTICULAR	119



LABURDURAK

EAE	Euskal Autonomia Erkidegoa.
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EiTB	Euskal Irrati Telebista Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa.
EI, S.A.	Eusko Irratia, S.A.
ETB, S.A.	Euskal Telebista, S.A.
SPKL	30/2007 Legea, urriaren 30ekoa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzkoa.
EEP	Enpleguaren Eskaintza Publikoa.
ABPP	Administrazio Klausula Partikularren Plegua.
GI, S.A.	Gasteiz Irratia, S.A.
GSDN	Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia.
TVCP/HKEE	Herri Kontuen Euskal Epaitegia.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegia (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legeak ezarritakoari jarraiki, Euskal Irrati Telebista /EITB Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoaren eta mendeko dituen Sozietateen Urteko Kontuak fiskalizatu ditu, 2009ko ekitaldiari dagozkionak.

2009ko ekitaldiaren fiskalizazioak honako alderdi hauek besarkatu ditu:

- Legezkoak: Ondasun eta zerbitzuen erosketan, langilerian eta ekonomia-finantzaren kudeaketan indarreko legeria bete dela egiaztatzea.
- Kontularitzakoak: Aurkeztutako dokumentazio finantzarioa ezargarri diren kontularitzako printzipioei meneratzen zaiela egiaztatzea.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta zuhurtasunari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi dela ere, azaleratutako hutsak "Barne kontrolerako sistemari eta kudeaketa prozedurei buruzko irizpenak" idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

Fiskalizazio lana sektore publikoari ezargarriak zaizkion auditoriako printzipio eta arauen arabera gauzatu da eta kasu bakoitzean beharrezko irizitako hautazko probak, prozeduren azterketa eta auditorian ohiko diren gainerako teknikak baliatu dira txostenean jasotako iritzia defendatzeko, kanpoko auditore batek egindako urteko kontuen auditoria euskarritzen duten lan paperen azterketa barne dela.

EiTB Eusko Legebiltzarraren maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak sortu zuen eta berezko nortasun juridikoa du. Autonomia Estatutuaren 19. artikulua xedatzen duenaren arabera, eskuordetu ziren eskumenen esparruan Autonomia Erkidegoari dagozkion egitekoak betetzen ditu, irrati eta telebista zerbitzuen titular den aldetik.

irradi-telebistako zerbitzu publikoen kudeaketa horretarako sortutako sozietateen bitartez gauzatzen da: Euskal Telebista, S.A./ETB, S.A., Eusko Irratia, S.A./EI, S.A., Gasteiz Irratia, S.A./RV, S.A. eta Eitbnet, S.A. (aurrerantzean, kudeaketa sozietateak).

EiTB eta mendeko sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EA Eren Aurrekontu Orokorren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatzen dira, 5/1982 Legearen 45.2 artikulua agintzen duenaren arabera. Bestetik, Eitbnet, Estatutuaren 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreren bidez finantzatuko da.

2007ko ekitaldian zehar, 2007-2010 kontratu-programa gauzatu zen; kontratu honek Enteak gauzatu beharreko irrati-telebistako zerbitzu publikoaren edukiak zehaztu eta 2008-2011 Plan estrategikoan barne hartutako helburuak definitzen ditu; irrati-telebistako zerbitzu publikoa emateko dituen konpromisoak, zerbitzua kudeatzekoak; eta Eusko Jaurlaritzaren ekarpenen bitartez finantzaketa egonkorra definitzen du, berariazko jarduerak, zerbitzuen prestazioak eta Entearentzat eta bere Kudeaketa Sozietateentzat aktibo erreal eta finantzazkoetan egindako inbertsioek eragindako ustiaketa gastua berdintzeko.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

II.1.1 ONDASUN, HORNIGAI ETA ZERBITZUEN EROSKETA (IKUS A.4)

1. DOUEn argitaratu gabe, nahitaezkoa dena, araudi harmonizatuari lotutako 5 kontratuak lehiatu dira (1, 2, 3, 4 eta 5 zenbakikoak), guztira 2 milioi euroren zenbatekoarekin, SPKLren 174 artikulua urratuz. Berebat, ez DOUEn, ez kontratugilearen profilean, ez zen kontratuaren esleipena argitaratu, SPKLren 138. artikulua urratuta.
2. Guztira 3 milioi euroren zenbatekoarekin esleitutako 9 espedienteetarik batean ere ez da lizitazio-gai den balioetsitako balioa zein den adierazten eta horrek SPKLren 76. artikulua urratzen du.
3. Guztira 1,5 milioi euroren zenbatekoan esleitutako 3 espedientetan (1, 2, 4 zenbakikoak) kontratuaren xedearekin lotu gabeko irizpideak eta/edo alde aurretik AKPPetan jaso gabeko ezaugarri teknikoak baloratu dira; horrek SPKLren 134.1 eta 2 artikulua urratzen ditu.
4. Publizitaterik gabeko prozedura negoziatua baliatuta obren kontratazioko sei espediente izapidetu dira, 833.003 euroan egikarituak eta hornidura eta zerbitzuetako beste 10 espediente, 1,1 milioi eurokoak, SPKLren 175. artikuluan aurreikusitako publizitate printzipioa urratuz.
5. Ondasun erosketak eta zerbitzuen kontratazioan, 2,9 milioi euroren zenbatekoan, SPKLn ezarritako esleipen prozedurak saihestu dira; banaka hartu izan balira, baina, araudi harmonizatuari lotuak leudeke.

II.1.2 LANGILEEN KONTRATAZIOA

6. 5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua zuzendari nagusiarik eskumena ematen badiu ere “ente publikoko eta bere sozietateetako zuzendaritza-langileak irizpide profesionalak baliatuta izendatzeko, alde aurretik izendapen horien berri administrazio kontseiluari emanaz”, egia da ere zuzendaritzako langilearen figura ez dagoela zehaztuta.

Alabaina, 5/1982 Legearen 47. artikulua dio Ente Publikoko eta mendeko dituen Sozietate Publikoetako langileria laneko legerian xedatutako arautuko duela (47.1 art.), nahiz era berean dioen “Enterako eta bere Sozietateetarako langileen hautaketa deialdi publiko bidez egingo da eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemari jarraiki” (47.2 art.).

130/1999 Dekretuari jarraiki, EITBk “Goi Karguetan” lau pertsona ditu izendatuak eta gainera, kargu horietarako Goi Zuzendaritzako kontratua derrigor baliatu behar dela ezartzen du.

2009ko ekitaldian zuzendaritzako lanpostu funtzioaletan 21 pertsona izendatu dira “profesionaltasunaren” kontzeptua baliatuta; kontzeptu hori, arestian aipatutako Entea sortzeko legearen 16. artikulua aurreikusten du, 4/1996 Legeak aldarazitakoa.



21 pertsona horietatik 11k ez zuten lehenagotik erakundearekin inongo kontratu loturarik eta ez daude Goi Kargudun modura bereiziak; hala eta guztiz ere, lan kontratu finkoekin kontratatu ditugu eta horrek 5/1982 Legearen 47. artikulua urratzen du.”

II.1.2.1 Aldi baterako lan kontratudun langileria

7. Lehenagotik zegoen lan-poltsa erabiltzeak, kideen merezimendu eta gaitasunak sailkatzen ez dituenak, ez du bermatzen 2009an aldi baterako lan kontratudun langileen kontratazioan 5/1982 Legean aurreikusitako merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzen direnik.

Eusko Irratiko langile finkoentzat egindako 2009ko EEP amaitu ondoren, 2010eko urrian, aldi baterako lan kontratudun langileentzako Eusko Irratiko lan-poltsa behar bezala sailkatua dago jada.

Epaitegi honen iritzira, Enteak eta mendeko dituen Sozietateek, 1etik 7ra bitarteko paragrafoetan aipatutako ez-betetzeak alde batera, zuzentasunez bete dute 2009ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jarduera arautzen duen lege arautegia.

II.2 URTEKO KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Euskal Irrati Telebista/EITB Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoa sortzen duen 5/1982 Legearen 45.2 artikulua dio erakundea eta mendeko dituen sozietateak, horien akzioen titular bakar dena, EAEren Aurrekontu Orokorren kontura eta gauzatzen dituzten jardueretatik eratorritako diru-sarrera eta etekinen bidez finantzatuko direla. Bestetik, Eitbnet, Estatutuen 12. artikuluan jasotakoaren arabera, bere jardueratik eskuratutako berezko sarreren bidez finantzatuko da.

Epaitegi honen iritzira, Entearen eta mendeko dituen Sozietateen bateratutako urteko kontuek, alderdi esanguratsu guztietan adierazi dute ondarearen, 2009ko abenduaren 31n finantza egoeraren, ekitaldian eragiketen emaitzen, ondare garbian aldaketan eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagozkion esku-diruzko fluxuen irudi fidela.

ONDOKO GERTAKARIAK

GSDNren Ikuskaritzak 2009ko uztailean errekerimendu espediente bat abiarazi zuen, Bilboko EI, SAN merkataritza kontratuarekin lan egiten duten pertsonen langile autonomoen erregimen berezian duten kokapena fiskalizatzearren. 2010eko maiatzaren 24ko errekerimenduaren arabera, ikuskaritza jardunak frogatutzat jo du 46 kontratuk, idazlari-esatari eta teknikariak batik bat, besteren konturako mendeko lanaren ezaugarriak dituztela EI, SAn antolamendu eta zuzendaritzaren eremuan, eta honenbestez, era horretara izapidetu behar direla atzeraeraginezko indarrez eta dagokion kotizazioa ordaindu behar



dela. Data horretatik aurrera, kontratu berriak lan kontratu mugagabe, ez finko modura izenpetu ziren.

Kuota horien ordainetan ordaindu beharreko zenbatekoa, 2005eko irailaren 2tik aurrera, 2,4 milioi eurokoa izan da eta 2010eko iraila eta 2011ko abendua bitartean ordaindu da.

Berebat, 2010eko otsailean ikuskaritza jarduera antzekoari ekin zitzaion Donostiako Eusko Irratian merkataritza kontratua zuten langileekin. Jarduera honen ondorioz, kuota kontzeptuan 1,6 milioi euro ordaindu dira.



III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEN ETA KUDEAKETA PROZEDUREN GAINEKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1. KONTRATAZIOA (IKUS A.4)

III.1.1. ARAUTZE HARMONIZATUARI LOTUTAKO KONTRATUAK

- Ez dago erasota horretarako eskumena duen organoak AKPPak onartu dituenik, ez eta horien gaineko txosten juridikorik dagoenik ere, hurrenez hurren, SPKLren 121 eta 25. artikulua urratuz.
- 3 kontraturen AKPPak (1, 4, 5 zenbakikoak), 1,3 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak, ez dituzte behar hainbat zehazten erabili beharreko esleipen irizpideak, 134.2 artikulua urratuz; berebat, esleipen txostenean ez dago jasota “proposamen teknikoa” irizpideari emandako puntuazioa behar hainbat justifikatuko duen motibaziorik.
- Guztira 1 milioi euroan esleitutako 2 espedienteren kontratuak (1, 4 zk.), ordainsari aldakorra eta dedikazio-ordu osagarriak bezalako kontzeptuak jasotzen dituzte, AKPPetan aurreikusi gabe zeudenak; honek SPKLren 26.2 artikulua urratzen du.
- AKPPek ez dute 2 espedientetan (2, 4 zk.) behar hainbat zehazten kontratuaren xedea eta horrek SPKLren 74. art. urratzen du.
- Behin-betiko bermea kontratua izenpetu ondoren gauzatu zen espediente lean (4 zenbakia), 619.935 euroan esleitutakoa; horrek SPKLren 135.4 artikulua urratzen du.

III.1.2 ARAUTZE HARMONIZATUARI LOTU GABEKO KONTRATUAK

- Dagokion zerbitzu juridikoak ez du kontratazioko instrukzioen gaineko alde aurreko txostena egin eta horrek SPKLren 175. artikulua urratzen du.
- Arautze harmonizatuari lotu gabeko 4 espediente aztertzean, ondoko akatsak azaleratu dira, SPKLren 121 eta 175 artikuluetan aurreikusitako xedapenak urratzen dituztenak:
 - Dekoratuetarako zurgintza lanen zerbitzuko espediente aleko prezioetan esleitu zen eta 2009ko urtean 186.195 euroan gauzatu; pleguek, baina, kontratuaren xedarekin zuzenean zerikusirik ez duten irizpideak barne hartzen dituzte, ez dago esleipendunaren dokumentazio juridikorik eta ez da publizitatea egiaztatu kontratugilearen profilean.
 - Aireira girotzeko instalazioak handitzeko obren espediente 586.101 euroan esleitu zen eta 2009ko urtean 312.921 euroan gauzatu zen; pleguek kaudimen irizpideak barne hartzen dituzte. A sortan eskaintza berriak eskatu ziren, alderdi kualitatiboak eta kopuruari dagozkionak ere aldarazten dituztenak, 27.004 eta 100.811 euro bitarteko murrizketa eginez.



- Bilbon ETB1 eta ETB2rako informatiboetarako plato berrien espedientea 2009ko urtean esleitu eta gauzatu zen 120.000 euroan eta 3 azpi-sortatan lizitatu zen: diseinua, egikaritzea eta muntaia plato bakoitzerako; egikaritzaren eta muntaiaren kontratazioa, ordea, diseinuaren esleipendunarentzat gordetzen da eta horrek zaildu egiten du ekonomikoki merkeen den eskaintzaren aldeko hautua egitea.

III.2 LANGILERIA

Adierazgarria da egungo organigraman 114 pertsona “zuzendaritzako langile” modura azaltzea; horiek lanpostua gutxienez hiru prozeduraren bidez eskuratu dute:

- 2009an laneratu ziren 11 pertsona eta 39 lehenagoko urteetan, kanpotik kontratatu dituzte, deialdi publikorik egin gabe eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemak baliatu gabe, Legearen 47. artikulua dioen moduan.
- Zuzendaritza lanpostuetatik 64 Taldeko langile finkoek betetzen dituzte eta izendapen askeko prozedura bidez eskuratu dute lanpostua, 5/1982 Legearen 16. art. aldarazten duen 4/1996 Legearen 1.2 artikulua aurreikusten duen moduan.
- Beste 4 “Goi Kargudun” modura ageri dira, berariazko arautegiari meneratuak.

Aintzat hartuta hainbat komunikabideren jabe den Ente honek duen berezitasuna kanpotik datorren langileriaren kontratazioan egungo egoera ebazteko eta Zuzendari Nagusiak lan legeria betetzeko eta merezimendu eta gaitasun printzipioetan oinarritutako sistemei jarraiki deialdi publikora meneratzeko eskumenak bateratzeko,

HKEEk gomendatzen du Zuzendari Nagusiak organigramaren aldaketa proposatu diezaiola Administrazio Kontseiluari, berak onar dezan, eta bertan finka ditzala “goi kargudun” edo bateratu irizitako lanpostuak, zentzuzko kopuruan eta 130/1999 Dekretuaren ondorioetarako, profesionaltasun irizpideei jarraiki kanpotik ekar daitezkeen bakarrak izango direnak eta Zuzendari Nagusiaren agintaldiari lotua geratuko den kontratazio prozedura bitartez (Goi Zuzendaritzako kontratua, obra kontratua edo antzekoak).

III.2.1 BURUTZAK

Ez da inongo irizpide objektiborik aurreikusi burutza lanpostuak balioztatu eta ordaintzeko eta zuzendaritzaren esku geratzen da soldata eta osagarriak balioztatu eta ematea. Jokamolde honek ez ditu agerian uzten lanpostuaren ezaugarriak, ez eta egindako balorazioa ere.

Beharrezkoa da burutzako lanpostuen ezaugarriak zehaztea eta horiek balioztatzeko irizpide objektiboak finkatzea, eskagarriak diren betekizunen arabera, hala nola, titulazio taldea, ezagutza teknikoak, zailtasuna, erantzukizuna eta baliagarritasuna.



III.2.2. ARDURA BEREZIKO PLUSA

Ardura bereziko plusak, finkagarria ez denak, erantzukizun edo konfiantza bereziko egitekoak betetzea saritu behar du; beti ere, egiteko horiek hitzarmenean finkatutako bere kategoriari dagozkionak gainditzen dituztenean eta bertan jasotako kategorietatik batean ere tokirik ez dutenean.

Ez dago hori emateko prozedura arauturik eta ordainsari puntuak zuzendaritzaren irizpidearen arabera ematen dira, horiek irizpide objektiboekin zenbatesteko aurrez finkatutako inongo balio-taularik ez dagoela. Indarreko hitzarmenek barne sustapena lanbide garapenaren atal modura jasotzen dute; horrek hautaketa prozesuan aukeren berdintasun eta gardentasuna bermatzen du.

2009an ardura bereziko plusa 63 langilek eskuratu dute, 149.240 euroren zenbatekoa egin dutenak, eta aztertu ditugun 6tatik batean ere ez dago argi hautatutako pertsonaren egokitasuna beste izangai batzuekiko, ez eta zenbatekoa zehazteko egindako balorazio kuantitatiboa ere.

Komenigarria litzateke irizpide objektiboak jasoko dituen balorazio sistema bat ezartzea eta indarreko plusak berraztertzea, horiek emateko arrazoiak eta ezarritako kategoriak egiaztatuz edo ezetsiz, osagarri honek izaera ez finkagarria izan arren denboran zehar luzatzen diren egoerak egokitzeko.

III.2.3. MAILA JASOAGOKO PLUSA

Maila jasoagoko plusa Erakundearen eta bere Sozietateen (ETB, 61.3 art.) hitzarmenean lanpostuaren osagarri modura dago jaso, ohikotasunez betetzen direnaz goiko kategoriako egitekoak betetzea saritzen duena. Ez da osagarri finkagarria eta kategoria jasoagoko egitekoak garatzen diren bitartean eskuratuko da.

2003 baino lehenagoko hitzarmenetan arautua zegoen langile batek maila jasoagoko egitekoak 5 hilabeteko epean betetzen bazituen, lanpostu finkoa deitu behar zela, esleipenean, merezimendu eta gaitasun irizpideak oinarri hartuta, aukeren berdintasuna eta gardentasuna bideratuz. Ordea, 2009ko hitzarmenean gehitu dute nahikoa izango dela betekizunak betetzea, balorazio batzordeak balioztatzea beharrezkoa izan gabe.

2009ko urtean izaera finkoarekin, norberaren inguruabarrak direla eta, guztira 8 pertsonak eskuratu dute 36.122 euroren zenbatekoan eta 223 pertsonak izaera aldakorrarekin 247.380 euroren zenbatekoan; hau da, kasu gehienetan maila jasoagoko egitekoak bete direlako ematen da, egun batetik gorako epe jarraituetan eta hilero saileko arduradunak egiaztatzen du hori. Edonola ere, izaera finkoa duten haiei dagokienez, inon ez da ageri plusa ematea balioztatzen denik.

III.2.4. HELBURUAK BETE DIRELAKO ORDAINSARI ALDAKORRA

2009ko hitzarmenean aurreikusitako ordainsari aldakorra, ekitaldi itxieran helburu zenbagarri eta neurgarriak bete izanaren arabera, hilero ordaindu da soldata gordinaren



% 0,5 eginez. Helburuak bete diren arren, ez da zuzena ordainsari hori helburuak bete aurretik ordaintzea.

III.2.5. GAUZA BIDEZ ORDAINTZEA

Langileei ondasunak erosteko emandako maileguen gauzazko ordainketak ez dira horrela aitortzen NUIZ ondorioetarako.

III.2.6. MERKATARITZA KONTRATUAK

Merkataritza kontratu bitartez berariazko lanak egiteko langile profesional eta/edo artistaren kontratazioa, ia beti programak aurkezteko edo horiek prestatu, editatu eta gauzatzeko, ez du finkatuta inongo hautatzeko prozedurarik eta ETB, SA eta EI, SAREN programazioko arduradunen eta zuzendaritzaren irizpidearen arabera gauzatzen da hainbat probaren bitartez; ez da, ordea, hautaketarako baliatutako profil eta irizpideen ebidentziarik jasotzen.

2009an langile autonomoen erregimenari loturik profesionalei egin zaizkien merkataritza kontratuetatik 13, Erregimen Orokorreko lan kontratutzat hartu dira eta ez autonomoen kontratutzat, egindako lanaren izaera aintzat hartuta, hau da, besteren kontura eta Bilboko EI, SAREN antolamendu eta zuzendaritza esparruaren menpe, GSDOK 2010eko maiatzaren 24ko errekerimenduan agindu duen bezala.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. URTEKO KONTUAK ETA AURREKONTUEN LIKIDAZIOA

IV.1. EITB ETA TALDEKO SOZIETATEEN KONTU BATERATUAK

Hona hemen balantzea, galera-irabazien kontua, ondare garbian aldaketan egoera eta eskudiruzko fluxuen egoera, 2009ko abenduaren 31n bateratuak eta auditatuak, milioi eurotan emanak:

BATERATUTAKO EGOERA BALANTZEAK			Euroak milioikotan		
AKTIBOA	2009	2008	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	2009	2008
AKTIBO EZ ARRUNTA	89,5	87,2	ONDARE GARBIA	108,1	106,3
Ibilgetu ukiezina.....	9,1	6,8	Berezko funtsak.....	93,2	95,3
Ibilgetu materiala.....	58,9	59,3	Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.....	14,9	11,0
Taldeko eta elkart. enpresetan e/luz. inber.	0,7	0,3	PASIBO EZ ARRUNTA	2,1	0,7
Finantza inbertsioak e/luz.....	20,8	20,8	Zorraz eta aldizkakotzea e/luz.....	2,1	0,7
AKTIBO ARRUNTA	69,4	70,0	PASIBO ARRUNTA	48,7	50,2
Izakinak.....	18,3	20,3	Zuzkidurak eta zorraz e/lab.....	5,3	5,1
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt.....	19,3	30,8	Merkatar. hartzek. & ordain. bestel. Kntu.	42,9	44,7
Finantza inbertsioak e/lab.....	0,5	0,6	e/lab. aldizkakotzeak.....	0,5	0,4
e/lab. aldizkakotzeak.....	-	0,3			
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz.	31,3	18,0			
AKTIBOA GUZTIRA	158,9	157,2	ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	158,9	157,2

BATERATUTAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUA		Euroak milioikotan	
	2009	2008	
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	28,5	35,4	
Izakinen aldakuntza.....	(1,9)	2,9	
Hornidurak.....	(65,6)	(68,8)	
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	143,1	129,6	
Langileria-gastuak.....	(56,4)	(52,6)	
Bestelako ustiapen gastuak.....	(48,4)	(48,4)	
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(9,5)	(8,6)	
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egozteak.....	2,4	1,7	
Hornidura gehiegizkoak.....	0,4	-	
USTIAKETAREN EMAITZA	(7,4)	(8,8)	
EMAITZA FINANTZARIOA	0,2	1,0	
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(7,2)	(7,8)	
EKITALDIKO EMAITZA BATERATUA	(7,2)	(7,8)	

BATERATUTAKO ONDARE GARBIA ALDAKETA EGOERA

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA BATERATUA		Euroak milioikotan	
	2009	2008	
Ekitaldiko emaitza bateratua.....	(7,2)	(7,8)	
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak.....	6,3	7,1	
Galera eta irabazien konturako transferentziak guztira.....	(2,4)	(1,7)	
AITORTUTAKO SARRERA ETA GASTU BATERATUAK GUZTIRA	(3,3)	(2,4)	



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B) ONDARE GARBIAN ALDAKETEN EGOERA BATERATUAK GUZTIRA

Euroak milioikotan

	GIZARTE	AURREKO	JASOTAKO DIRU-LAG.,		
	FUNTSA ETA	EKIT.	EKIT.	DOHAIN. ETA	GUZTIRA
	ERRETSEBBAK	EMAITZAK	EMAITZA	LEGATUAK	
2007-KO URTEKO AZKEN SALDOA	202,4	(103,0)	(3,6)	-	95,8
Kontularitzako arautegi berrira aldatzeag. doiketak	-	-	-	5,6	5,6
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	202,4	(103,0)	(3,6)	5,6	101,4
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(7,8)	5,4	(2,4)
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	7,5	(3,8)	3,6	-	7,3
2008-KO URTEKO AZKEN SALDOA	209,9	(106,8)	(7,8)	11,0	106,3
Aitortutako sarrera eta gastuak	-	-	(7,2)	3,9	(3,3)
Ondare garbiaren bestelako aldaketak	5,2	(7,9)	7,8	-	5,1
2009-KO URTEKO AZKEN SALDOA	215,1	(114,7)	(7,2)	14,9	108,1

ESKUDIRUAREN BATERATUTAKO FLUXUEN EGOERA

Euroak milioikotan

	2009	2008
	Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(7,2)
Emaitzari doiketak	6,8	6,3
Kapital arruntean aldaketak	11,8	5,1
Ustiaketa jardueren eskudiruzko beste fluxu batzuk	0,4	0,9
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	11,8	4,5
Inbertsioen ordainketak	(11,6)	(15,8)
Inbertsio ezagatik kobrantzak	0,2	(0,1)
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	(11,4)	(15,7)
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak	1,4	0,4
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak.....	11,4	14,5
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK	12,8	14,9
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA	13,3	3,6
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran.....	18,0	14,4
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	31,3	18,0



IV.2. EITB-REN ETA TALDEKO SOZIETATEEN BANAKO KONTUAK

Hona hemen 2009ko abenduaren 31n urteko kontuak, milako euroetan emanak:

BALANTZEA	Euroak milakotan				
	EITB	ETB, S.A.	EI, S.A.	GI, S.A.	EITBNET, S.A.
AKTIBO EZ ARRUNTA	89.635	64.404	1.585	1.189	911
lbilgetu ukiezina.....	464	8.235	36	-	423
lbilgetu materiala.....	7	56.169	1.549	1.189	7
Taldeko enpresetan epe luzeko inbertsioak.....	68.406	-	-	-	481
Finantza inbertsioak epe luzera.....	20.758	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA	31.712	55.665	6.891	931	2.039
Izakinak.....	-	18.297	-	-	-
Merkataritzako zordunak eta kobratz. beste kontu batzuk....	10	14.887	2.063	332	2.038
Taldeko enpresetan epe laburreko inbertsioak.....	395	22.014	4.816	589	-
Finantza inbertsioak epe laburrera.....	20	402	1	-	1
Aldizkakotzeak.....	9	49	3	5	-
Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak.....	31.278	16	8	5	-
AKTIBOA GUZTIRA	121.347	120.069	8.476	2.120	2.950

ONDARE GARBIA ETA PASIBOA	Euroak milakotan				
	EITB	ETB, S.A.	EI, S.A.	GI, S.A.	EITBNET, S.A.
ONDARE GARBIA	93.388	76.434	4.328	1.377	800
Berezko funtsak.....	92.924	62.014	4.328	1.377	800
Diru-laguntzak, dohaintzak eta jasotako legatuak.....	464	14.420	-	-	-
PASIBO EZ ARRUNTA	-	2.051	-	-	-
Epe luzeko zorrak.....	-	172	-	-	-
Aldizkakotzeak epe luzera.....	-	1.879	-	-	-
PASIBO ARRUNTA	27.959	41.584	4.148	743	2.150
Epe laburreko zuzkidurak.....	-	2.839	1.405	167	5
Epe laburreko zorrak.....	-	668	-	6	-
Taldeko eta elkartutako enpresekiko zorrak epe laburrera.....	27.399	-	-	-	395
Merkataritz. hartzek. eta ordain. beste kontu batzuk.....	560	37.556	2.743	570	1.750
Aldizkakotzeak epe laburrera.....	-	521	-	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA	121.347	120.069	8.476	2.120	2.950



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

GALERA-IRABAZIEN KONTUA

Euroak milakotan

	EITB	ETB, S.A.	EI, S.A.	GI, S.A.	EITBNET, S.A.
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	-	19.587	4.533	730	7.425
Izakinen aldakuntza	-	(1.864)	-	-	-
Hornidurak	(15)	(59.813)	(5.200)	(459)	(3.902)
Bestelako ustiaketa sarrerak	5.617	119.091	15.013	3.350	-
Langileria-gastuak	(5.203)	(38.007)	(9.938)	(2.353)	(890)
Bestelako ustiapen gastuak	(802)	(39.033)	(4.643)	(1.395)	(2.499)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	(17)	(8.915)	(274)	(171)	(165)
Ibilgetu ez finantzarioko diru-laguntzak egoztea	8	2.395	-	-	-
Beste batzuk	(2)	405	-	-	9
USTIAKETAREN EMAITZA	(414)	(6.154)	(509)	(298)	(22)
Finantza sarrerak.....	373	20	-	-	46
Finantza gastuak eta truke aldeak	(34)	(175)	-	-	-
Baliabide finantz. besterenganatz. narriadura eta emaitza	(7.102)	-	-	-	(4)
EMAITZA FINANTZARIOA	(6.763)	(155)	-	-	42
EMAITZA ZERGA AURRETIK	(7.177)	(6.309)	(509)	(298)	20
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-	(6)
EKITALDIAREN EMAITZA	(7.177)	(6.309)	(509)	(298)	14

ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA

A) AITORTUTAKO SARREREN ETA GASTUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB, S.A.	EI, S.A.	GI, S.A.	EITBNET, S.A.
Galera eta irabazien kontuaren emaitza	(7.177)	(6.309)	(509)	(298)	14
Ondare garbian zuzenean jasotako sarrera eta gastuak	-	6.290	-	-	-
Galera-irabazietara transferentziak.....	(8)	(2.395)	-	-	-
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA	(7.185)	(2.414)	(509)	(298)	14

B) ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milakotan

	GIZARTE FUNTSA ETA ERRETSEBAK	AURREKO EKIT. EMAITZAK	JASOTAKO DIRU-LAG., EKIT. EMAITZA	DOHAIN. ETA LEGATUAK	GUZTIRA
EITB					
2007-KO URTEKO AZKEN SALDOA	202.339	(102.987)	(3.804)	-	95.548
Kontularitzako arautegi berrira aldatzeag. doiketak	-	-	-	480	480
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	202.339	(102.987)	(3.804)	480	96.028
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA.....	-	-	(7.972)	(8)	(7.980)
Kapitalaren igoerak.....	7.375	-	-	-	7.375
Emaitzen banaketa	-	(3.804)	3.804	-	-
2008-KO URTEKO AZKEN SALDOA	209.714	(106.791)	(7.972)	472	95.423
AITORTUTAKO SARRERAK ETA GASTUAK GUZTIRA.....	-	-	(7.177)	(8)	(7.185)
Kapitalaren igoerak.....	5.150	-	-	-	5.150
Emaitzen banaketa	-	(7.972)	7.972	-	-
2009-KO URTEKO AZKEN SALDOA	214.864	(114.763)	(7.177)	464	93.388

.../...



Herri - Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B) ONDARE GARBIAK ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milakotan

	KAPITALA, SARIA, JAULKIPENA ETA ERRETSERBAK	AURREKO EKIT. EMAITZAK	JASOTAKO DIRU-LAG., EKIT. DOHAIN. ETA EMAITZ. LEGATUAK	GUZTIRA
ETB, S.A.				
2007-KO URTEKO AZKEN SALDOA	159.891	(91.154)	(3.868)	64.869
Kontularitzako arautegi berrira aldatzeag. doiketak	(12)	-	-	5.133
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	159.879	(91.154)	(3.868)	69.990
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(8.116)	5.392
Kapitalaren igoerak	6.892	-	-	-
Emaizten banaketa	-	(3.868)	3.868	-
2008-KO URTEKO AZKEN SALDOA	166.771	(95.022)	(8.116)	74.158
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	166.771	(95.022)	(8.116)	74.158
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(6.309)	3.895
Kapitalaren igoerak	4.690	-	-	-
Emaizten banaketa	-	(8.116)	8.116	-
2009-KO URTEKO AZKEN SALDOA	171.461	(103.138)	(6.309)	76.434
EI, S.A.				
2007-KO URTEKO AZKEN SALDOA	13.492	(9.053)	229	4.668
Kontularitzako arautegi berrira aldatzeag. doiketak	(2)	-	-	-
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	13.490	(9.053)	229	4.666
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(429)	-
Kapitalaren igoerak	300	-	-	-
Emaizten banaketa	-	229	(229)	-
2008-KO URTEKO AZKEN SALDOA	13.790	(8.824)	(429)	4.537
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	13.790	(8.824)	(429)	4.537
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(509)	-
Kapitalaren igoerak	300	-	-	-
Emaizten banaketa	-	(429)	429	-
2009-KO URTEKO AZKEN SALDOA	14.090	(9.253)	(509)	4.328
GI, S.A.				
2007-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.202	(3.170)	(254)	1.778
Kontularitzako arautegi berrira aldatzeag. doiketak	(1)	-	-	-
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	5.201	(3.170)	(254)	1.777
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(177)	-
Kapitalaren igoerak	45	-	-	-
Emaizten banaketa	-	(254)	254	-
2008-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.246	(3.424)	(177)	1.645
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	5.246	(3.424)	(177)	1.645
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	(298)	-
Kapitalaren igoerak	30	-	-	-
Emaizten banaketa	-	(177)	177	-
2009-KO URTEKO AZKEN SALDOA	5.276	(3.601)	(298)	1.377

.../...



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B) ONDARE GARBIA ALDAKETEN EGOERA GUZTIRA

Euroak milakotan

	KAPITALA, SARIA, JAULKIPENA ETA ERRETSERBAK	AURREKO EKIT. EMAITZAK	JASOTAKO DIRU-LAG., EKIT. DOHAIN. ETA LEGATUAK	GUZTIRA
EITBNET, S.A.				
2007-KO URTEKO AZKEN SALDOA	463	-	20	483
Kontularitzako arautegi berrira aldatzeag. doiketak	-	-	-	-
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	463	-	20	483
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	36	36
Kapitalaren igoerak	137	-	-	137
Emaitzen banaketa	20	-	(20)	-
2008-KO URTEKO AZKEN SALDOA	620	-	36	656
DOITUTAKO SALDOA, 2008-KO URTE HASIERA	620	-	36	656
Aitortutako sarrerak eta gastuak guztira	-	-	14	14
Kapitalaren igoerak	130	-	-	130
Emaitzen banaketa	36	-	(36)	-
2009-KO URTEKO AZKEN SALDOA	786	-	14	800

ESKUDIRUEN FLUXUEN EGOERA

Euroak milakotan

	EITB	ETB, S.A.	EI, S.A.	GI, S.A.	EITBNET, S.A.
USTIAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Ekitaldiaren emaitza zerga aurretik.....	(7.177)	(6.309)	(509)	(298)	20
Emaitzari doiketak	6.773	6.200	422	213	263
Kapital arruntean aldatetak	(4.011)	11.277	306	31	279
Eskudiruzko beste fluxu batzuk	475	(156)	(1)	-	32
GUZTIRA	(3.940)	11.012	218	(54)	594
INBERTSIO-JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Inbertsioek erag. ordainketak.....	(1.150)	(23.399)	(531)	24	(724)
Inbertsio ezagatik kobrantzak	606	6	-	-	-
GUZTIRA	(544)	(23.393)	(531)	24	(724)
FINANTZAKETA JARDUEREN ESKUDIRUZKO FLUXUAK					
Ondareko baliabideengatik kobrantza eta ordainketak	5.150	10.980	300	30	130
Finantza pasiboko baliabideen kobrantza eta ordainketak.....	12.629	1.400	-	-	-
GUZTIRA	17.779	12.380	300	30	130
ESKUDIRU EDO BALIOKIDEEN IGOERA/MURRIZKETA GARBIA					
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi hasieran	(17.983)	(17)	(21)	(5)	-
Eskudirua edo baliokideak ekitaldi amaieran	31.278	16	8	5	-
GUZTIRA	13.295	(1)	(13)	-	-



IV.3. EITB ETA TALDEKO SOZIETATEEN AURREKONTU LIKIDAZIOA

2009ko ekitaldirako kapital eta ustiaketa aurrekontua honako hau da:

KAPITALAREN AURREKONTUA	Euroak milakotan				
	EITB	ETB, S.A.	EI, S.A.	GI, S.A.	EITBNET, S.A.
INBERTSIOAK					
Inbertsioek erag. ordainketak.....	5.150	12.472	300	30	130
Finantza pasiboko baliabideeng. ordainketak.....	-	-	-	-	96
INBERTSIOAK GUZTIRA	5.150	12.472	300	30	226
FINANTZAKETA					
Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxuak.....	-	-	-	-	96
Ondareko baliabideengatik kobrantzak.....	5.150	10.872	300	30	130
Finantza pasiboko baliabideeng. kobrantzak.....	-	1.600	-	-	-
FINANTZAKETA GUZTIRA	5.150	12.472	300	30	226

USTIAPENAREN AURREKONTUA	Euroak milakotan				
	EITB	ETB, S.A.	EI, S.A.	GI, S.A.	EITBNET, S.A.
GASTUAK					
Hornidurak.....	43	20.534	994	48	-
Beste enpresa batzuek egindako lanak.....	-	54.180	4.001	436	3.343
Langileria-gastuak.....	5.104	38.477	9.471	2.299	893
Bestelako ustiapen gastuak.....	921	29.959	5.216	1.371	1.189
Ibilgetuaren amortizazioa.....	9	11.047	272	189	56
Eman beharreko diru-laguntzak.....	137.985	-	-	-	-
Finantza gastuak.....	50	100	2	1	-
Ibilgetua besterenganatzeagatik narriadura eta emaitza.....	6.268	-	-	-	-
Mozkinen gaineko zerga.....	-	-	-	-	12
Ekitaldiaren mozkina.....	-	-	-	-	40
GASTUAK GUZTIRA	150.380	154.297	19.956	4.344	5.533
AURREKONTU ALDAKETAK	(1.000)	(1.408)	350	58	0
AZKEN AURREKONTUAREN GASTUAK GUZTIRA	149.380	152.889	20.306	4.402	5.533
SARRERAK					
Negozio zifraren zenbateko garbia.....	-	23.220	5.021	863	5.533
Ustiaketarako bestel. diru-laguntzak.....	143.602	120.030	14.663	3.292	-
Ibilgetu ez finantzarioko diru-lag. egoztea.....	-	5.200	-	-	-
Finantza sarrerak.....	500	-	-	-	-
EKITALDIKO GALERA	6.278	5.847	272	189	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	150.380	154.297	19.956	4.344	5.533
AURREKONTU ALDAKETAK	(1.000)	(1.408)	350	58	0
AZKEN AURREKONTUAREN SARRERAK GUZTIRA	149.380	152.889	20.306	4.402	5.533



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

KAPITALAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB		E.		G.I.		EITB.NET	
	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA
INBERTSIOAK										
Inbertsioek erag. ordainketak	5.150	5.150	12.472	10.929	30	533	300	31	130	370
Ibilgetu ez finantzarioko diru-lag. egozteak	-	7	5.200	2.395	-	-	-	-	-	-
Eskudiruaren igoera garbia	-	13.295	-	-	-	-	-	-	-	-
Kapital zirkulatzailaren aldaketa	-	-	-	1.579	-	-	-	-	-	-
Finantza pasiboko balibideen ordaink.	-	-	-	-	-	-	-	-	96	-
Ekitaldiaren defizita	6.278	7.178	8.847	6.309	272	509	189	298	-	-
INBERTSIOAK GUZTIRA	11.428	25.630	26.519	21.212	572	1.042	219	329	226	370
FINANTZAKETA										
Ustiaketa jardueren eskudiruzko fluxua	5.150	-	-	2	-	13	-	-	-	-
Ondareko balibideengatik kobrantzak	6.268	5.150	10.872	10.985	300	300	30	30	130	130
Narriaduragatiko balorazio-zuzenketak	10	7.102	-	-	-	-	-	-	3	3
Amortizaziorako zuzkid.	-	17	11.047	8.915	272	274	189	171	56	165
Kapital zirkulatzailaren aldaketa	-	13.361	-	-	-	455	-	128	40	57
Finantza pasiboko balibideen ordaink.	-	-	1.600	1.310	-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren mozkina	-	-	-	-	-	-	-	-	15	15
FINANTZAKETA GUZTIRA	11.428	25.630	23.519	21.212	572	1.042	219	329	244	370

USTIAPENAREN AURREKONTUA

Euroak milakotan

	EITB		ETB		E.		G.I.		EITB.NET	
	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA	AZKENA	GAUZATUA
GASTUAK										
Hornidurak	43	15	20.534	19.363	994	506	48	42	-	17
Beste enpresa batzuek egindako lanak	-	-	53.180	47.172	4.001	4.694	436	417	3.343	3.884
Langileria-gastuak	5.104	5.203	38.069	38.007	9.821	9.938	2.357	2.353	893	890
Bestelako ustiapen gastuak	921	804	29.960	32.311	5.216	4.643	1.371	1.395	1.189	2.500
Ibilgetuaren amortizazioa	9	17	11.047	8.915	272	274	189	171	56	165
Izakinen aldakuntza	-	-	-	1.864	-	-	-	-	-	-
Eman beharreko diru-laguntzak	136.985	-	-	-	-	-	1	-	-	-
Finantza gastuak	50	34	100	176	2	-	-	-	-	-
Ibilgetua besterentz. emaitz. narriad.	6.268	7.102	-	5	-	-	-	-	-	-
Mozkinen gaineko zerga	-	-	-	-	-	-	-	-	11	6
Ekitaldiaren mozkina	-	-	-	-	-	-	-	-	40	15
GASTUAK GUZTIRA	149.380	13.175	152.889	147.813	20.306	20.055	4.402	4.378	5.533	7.477
SARRERAK										
Negozio zifraren zenbateko garbia	-	-	23.220	19.906	5.021	4.533	863	730	5.533	7.425
Bestelako ustiaketa sarrerak	142.602	5.617	118.622	118.772	15.013	15.013	3.350	3.350	-	6
Ibilgetu ez finantzarioko diru-lag. egozteak	-	8	5.200	2.395	-	-	-	-	-	-
Finantza sarrerak	500	372	-	430	-	-	-	-	-	46
Ekitaldiko galera	6.278	7.178	5.847	6.309	272	509	189	298	-	-
DIRU-SARRERAK GUZTIRA	149.380	13.175	152.889	147.812	20.306	20.055	4.402	4.378	5.533	7.477



EUSKAL IRRATI TELEBISTA-RADIO TELEVISIÓN VASCA (EITB) ZUZENBIDE PRIBATUKO ERAKUNDEAREN ETA HAREN MENPEKO SOZIETATEEN FISKALIZAZIOAREN EMAITZEN ALEGAZIOAK, 2009.

ALDEZ AURRETIKOA:

Aldez aurretiko gai bezala, zehaztu beharra dago 2009ko ekainetik aurrera abian jarri zela “Euskal Irrati Telebista-Radio Televisión Vasca” erakundeak eta haren menpeko sozietateek (aurrerantzean EITB) kontratatzeke daukaten prozeduren berrikuspen bat, betiere 2004/18/CE Zuzentarauak eragin zuen eta 2008ko apirilaren 30ean indarrean sartu zen Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen arabera egokitzeko.

Izan ere, 2009ko ekainera arte EITB lotzen zitzaion indargabetutako Herri Administrazioaren Kontratuei buruzko Legearen 6. xedapen gehigarriari; gauzak horrela, kontratazioa publizitate eta lehiaren pean jartzen zuen, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak ikuskatutako barne prozeduretan islatzen den bezala.

Hala eta guztiz ere, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Lege berria (aurrerantzean SPKL) indarrean sartu eta gero, EITBk ulertu zuen SPKL berria (3. artikuluan agertzen den idazkeraren arabera) aplikagarri zitzaiola osotasunean, betiere erakundearen izaera juridikoa kontuan harturik eta SPKLren 3. artikuluko horren 3 b) idatz-zatiak ezarritakoaren haritik “Botere Adjudikatzailerik” gisa identifikaturik, bai erakunde publikoari bai kudeaketa sozietate publikoari zegokienez (EUSKAL TELEBISTA, S.A.U – EUSKO IRRATIA,S.A.U – RADIO VITORIA,S.A.U y EITBNET,S.A.U.).

Ildo horri jarraituz, 2009ko uztailean SPKLri eta haren printzipioei lotutako kontratazio prozedura berria ezarri zen; gauzak horrela, 2009ko abenduan prozedura amaitu eta EITBren webgune korporatiboan kontratazio jarraibideak argitaratu ziren. Gainera, 2009tik gaur egunera arte etengabeko hobekuntza jarduerak aurrera eramanez, barne kontrolaren sistemari nahiz kontratazioaren kudeaketa prozedurari dagokienez, idatzi honen alegazioetan zehazten den bezala.

2009ko uztaileko dataren aurretiko espedienteek aurreko urteetan ezarritako kontratazio prozedurari jarraitu zioten; prozedura horrek ISO 9001:2000 ziurtagiria lortu zuen 2002ko maiatzean, segidako berrikuntzak izan zituen eta kanpo ikuskapenak gainditu zituen urtero-urtero.

A. TXOSTENAREN ONDORIOEI BURUZ

II.1.1. ATALA. ONDASUN, HORNIGAI ETA ZERBITZUEN EROSKETA.

1. “Arauketa harmonizatuari lotutako eta 2 milioi euroko kopuru osoan esleitutako 5 kontratuen lizitazioa (1, 2, 3, 4 eta 5. zenb.) egin da, EBEOan manuzko publizitatea argitaratu gabe; gauzak horrela, ez da SPKLren 174. artikulua bete. Halaber,



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

kontratuaren esleipena ez zen kontratugilearen profilean argitaratu, eta, ondorioz, ez zen SPKLren 138. artikulua bete”.

EITBREN ALEGAZIOA II.1.1.1. ATALA DELA ETA:

Hasteko eta behin, zehaztu beharra dago aipatutako aurreneko espediente (zehatzago, I.a) SPKLren II. eranskinaren 26. kategoriaren barruan sartzen den zerbitzu baten kontratazioari dagokiola, eta, horrenbestez, ez dago kontratazio harmonizatuari loturik.

Azaldutakoa kontuan harturik, EITBren aldetik ez zen ez-betetzetik izan 1. espedientearen lizitazioan; izan ere, ez zen beharrezkoa lizitazioaren iragarkia EBEOn argitara ematea, SPKLren 174.1.b. artikulua ezartzen duen bezala, kontratua ez baitzizaion arauketa harmonizatuari lotzen.

Gainerako 4 espedienteak (2, 3, 4 eta 5. zenb.) EBEOn argitaratzeari dagokionez, bidezkoa da argitzea horien lizitazioa egitean ETB uneoro lotu zitzaizola orduan indarrean zegoen eta geroago aldarazia izan zen kontratazio jarraibideen gaineko gidaliburuari; eta, horren arabera, erakundeak botere adjudikatzailerik ez zeukanez gero, ez zen manuzkoa EBEOn argitaratzea.

Aurrekoa gorabehera eta Epaitegiak berak egiaztatu ahal izan zuenez, 2009ko abenduan EITBk kontratazio jarraibideei buruzko gidaliburu berri eta bakarra onetsi zuen, eta harrezkero, EBEOn argitaratzeko betebeharra zorrotz betetzen hasi zen.

Azkenik, Epaitegiak adierazten du, SPKLren 138. artikulua ezarritakoaz bestaldera, ez zirela kontratugilearen profilean argitaratu espediente horien adjudikazioak.

Epaitegiak berak fiskalizazio zereginean egiaztatu ahal izan duenez, EITBk bere kontratu jarduera guztiari publikitatea emateko abian jarritako “kontratugilearen profila” izeneko aplikazioak une horretan hiru “erlantz” zituen, kontratazio prozedura baten 3 faseei zegozkienak (zehatzago, “*hurrengo kontratazioak*”, “*izapidetzen ari diren kontratazioak*” eta “*esleitutako kontratazioak*”). Hiru “erlantz” horien bitartez, lizitaziogileek edo interesdunek kontratazio espedienteen gaineko informazioa eskara zezaketen.

Zehatzago, hirugarren “erlantzean” (esleitutako kontratazioak) publikitatea ematen zitzaien esleipen fasean zeuden espedienteek, eta horretan behar bezala argitaratu zen aipatutako 5 espedienteen adjudikazioa (1, 2, 3, 4 eta 5. zenb.), datoren arabera zegokien momentuan, hain zuzen ere.

Epaitegiak aipatutako espedienteek ez dute inola ere izan zehaztutakoaz bestaldeko tratamendurik.

Igaro den denbora tarteari men eginda, ezin egiazta dezakegu informatikoki esleipen horiek kontratugilearen profilean argitaratu direnik. Nolanahi ere den, argitalpenaren froga gisa erants ditzakegu argitalpen horren bidez automatikoki sortzen ziren jakinarazpenak, lizitaziogile bakoitzak jasotzen zituenak.



Horrela, adibide gisa eta gehiegi ez errepikatzearren, adjudikaziodunak esleitutako kontratazioak argitaratu ondoren jasotako jakinarazpenaren kopia erantsi dugu. 1. dokumentua.

Horren guztiaren ondorioz, gure ustetan, ez da bidezkoa Epaitegiak atal honetan ateratako ondorioa.

2. "Ez da lizitazioaren balioa zehazten 3 milioi euroren truke adjudikatutako 9 lizitazio espediente aztertuetariko bakar batean ere; beraz, ez da SPKLren 76. artikulua betetzen".

EITBREN ALEGAZIOA II.1.1.2. ATALA DELA ETA:

Aztertutako 9 espedientei dagokienez, egia da erakunde kontratatzaileak ez zuela berariaz baliatu BJAREN atal bat kontratuaren "balio zenbatetsia" identifikatzeko, baina, halaber, egia da espedienteetariko batzuetan (adibidez, 1.an) kontratatu beharreko gehieneko unitateak ez ezik unitate bakoitzeko eskaini beharreko gehieneko prezioak ere zehazten zirela; horrek lizitaziogileei modu praktikokan ahalbidetu zien kontratuaren balio zenbatetsia zehaztea, SPKLren 76. artikulua ezarritakoaren arabera.

Puntu honetan gogorarazi beharra daukagu aipatutako 9 espedienteak prestatzeko eta esleitzeko momentuan indarrean zeuden Kontratazio Jarraibideei buruzko Gidaliburuak ez zuela beren-beregi jasotzen betebeharr hori.

Azpimarratzekoa da, Epaitegiak berak egiaztatu ahal izan duenez, 2009ko abenduan EITBk Kontratazio Jarraibideei buruzko 2. Gidaliburua onetsi zuenez geroztik, gai hori behar bezala konpondu zuela.

3. "Kontratuaren gaiarekin zerikusirik ez duten edota AKBAN alde aurretik agertzen ez diren irizpideak baloratzen dira 1,5 milioi euroren truke adjudikatutako 3 espedientetan (1, 2 eta 4. zenb.); beraz, ez dira SPKLren 134.1 eta 2. artikulua betetzen".

EITBREN ALEGAZIOA II.1.1.3. ATALA DELA ETA:

Jarraian agerian jarriko den bezala, erreferentziazko espediente bakoitzean eskaintza ekonomikorik abantailatsuena zehazteko ezarritako irizpide guztiek zuzeneko erlazio zorrotza zeukaten kontratuaren gaiarekin. Gauzak horrela, erreferentziazko espedienteetan ezarritako irizpideetara jo behar da berriro ere, kontratuaren gaiarekin zeukaten zuzeneko eta benetako lotura arrazoitzeko.

Lehendabiziko espedientearen (1. zenb.) kontratazioaren gaia honakoa izan zen: "ile-apaindegi eta makillaje zerbitzua Miramonen". Zehatzago, baldintza teknikoan agerian (BTA) proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomikorik abantailatsuena zehazteko definitutako irizpideak honako hauek izan ziren:



- a) Proposamen ekonomikoa; guztira 50 puntu
- b) Proposamen teknikoa: guztira 45 puntu, hurrengo azpi-irizpide hauen arabera sailkatuta:
- B.1 Zerbitzuaren deskripzioa (20 puntu)
 - B.2 Zerbitzua emateko giza taldea (20 puntu)
 - B.3 Erantzuteko denbora tarte (5 puntu)
- c) Adjudikaziodunak egindako bestelako hobekuntza proposamen batzuk; guztira 5 puntu

Mota honetako zerbitzu batean balio teknikoa, giza balioa eta jarduteko gaitasuna prestazioaren funtsezko elementuak dira; horrenbestez, eskaintza ekonomikorik abantailatsuenaren identifikatzeko eta zehazteko ezinbestekoa da, esate baterako, honako gai hauek objektiboki baloratzeko: erantzuteko denbora tarte, zerbitzua ematen jardungo duten profesionalen taldea edo zerbitzuaren antolakuntza operatiboa. Horiexek dira proposamenak baloratzeko erabilitako irizpide bakarrak.

Bigarren espedientearen (2. zenb.) kontratazioaren gaia honakoa izan zen: *“kamera kateen eta optikoen hornikuntza Miramoneko 22. estudiorako”*.

Kasu honetan, BTAn proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomikorik abantailatsuenaren zehazteko definitutako irizpideak honako hauek izan ziren:

- a) Proposamen teknikoa: %60 (%100ren gainean)

Eskaintako irtenbidea eta hori eskatutako beharkizun teknikoetara egokitzeko modua (beharkizun operatiboak eta ustiapenaren aldetikoak): %45

Eskaintako irtenbidea eta hori eskatutako beharkizun teknikoetara egokitzeko modua (kalitateari buruzko beharkizun teknikoak): %35

Eskaintako epeak eta horien arrazionaltasuna: %3

Bermearen epea: %5

Konprometitutako baliabide teknikoak eta giza baliabideak: %4

Prestakuntza plangintza: %3

Dokumentazio teknikoa eta gidaliburuak: %1

Euskarrien eta mantentzearen zerbitzu teknikoak: %4

- b) Proposamen ekonomikoa: %40 (%100ren gainean)

Eskaintza ekonomiko nagusia: %80

Aukerak eta gainprestazioak: %3

Hedapen proposamena eta prezioen mantentzea: %7

Ordezko piezen gaineko proposamen ekonomikoa: %5

Euskarrien eta mantentzearen zerbitzuen proposamen ekonomikoa: %5



Kontratazio honen gaiaren hornikuntza oso “teknikoa” zen; gauzak horrela, SPKLren 134.1. artikulua berariaz ezarritako gai osagarriek (hala nola entrega epeak, bermearen epe gehigarriak, emandako dokumentazioa eta gidaliburuak edo arazoei erantzuteko denbora tarteak) berariaz gaintzen zuten eskaintza ekonomikorik abantailatsuenaren garrantzia, gainerako proposamenen aldean.

Azaldutako guztia dela eta, EITBren iritziz, erreferentziazko espedientean definitutako irizpideak zuzenbideari lotzen zaizkio, hornikuntzaren gaiari argi eta garbi dagozkiolako; gainera, horiexek izan dira proposamenak baloratzeko erabilitako irizpide bakarrak.

Azkenik, hirugarren espedientearen (4. zenb.) kontratazioaren gaia honakoa izan zen: *“artapen telefonikoaren, harreraren, azafaten eta kronisten zerbitzuak”*.

Kasu honi gagozkiola, BTPn proposamenak baloratzeko eta eskaintza ekonomikorik abantailatsuenaren zehazteko definitutako balorazio irizpideak hurrengoak izan ziren:

a) Proposamen ekonomikoa (50 puntu)

b) Proposamen teknikoa (35 puntu)

B.1 Zerbitzuaren deskripzioa / Lan plangintza (20 puntu)

- Bezeroarekiko lan metodologia.
- Laguntzarako giza baliabideak. Adjudikaziodunak EITB Taldeko Zerbitzu Arduradunarekin izango duen ohiko solaskidearen profila eta curriculum vitae adieraziko dira bereziki. Lote bakoitzean pertsona desberdinak izanez gero, hori ere zehaztu behar izango da.
- Enpresan zerbitzua emateko eskuragarri dauden giza baliabideak eta baliabide teknikoak.
- Kalitate eta ingurumen arloko politika.
- Erreferentziak.

B.2 Erantzuteko konpromiso gisa hartutako gehieneko denbora tarteak (10 puntu)

- EITB Taldeko Zerbitzu Arduradunaren aldetik zerbitzu premia berri baterako eskaera formala (e-posta bidezko eskaera) dagoenetik premia hori bete arteko denbora tarteak (langileak euren lanpostuan, zerbitzua emanez).
- Kontratugileak parametro horren jarraipen eta kontrola erraz egiteko prozedura.

B.3 Langileen kudeaketa plangintza (5 puntu)

c) Adjudikaziodunak proposatutako bestelako hobekuntzak. Horien artean honakoak sartuko dira: (15 puntu)

- Langileak prestatzeko orduen poltsa (zerbitzua emateko ordutegitik kanpo).
- Bestelakoak.



Zerbitzu baten ardatza zerbitzu hori ematen duen langileria denean, eskaintza ekonomikorik abantailatsuena egiaztatzeko, zuzenbideari lotzen zaio honako irizpide hauek aintzat hartzea: zerbitzuaren pean jarritako langileen prestakuntza, funtzionamenduaren operatiboa, langileak ordeztzeko modua, premiei eman beharreko erantzun tartearak edo zerbitzuen eskaerak.

Horiek guztiak, zerbitzuaren gaiarekin zerikusia dutenez, garrantzi handikoak dira zerbitzua emateko orduan. Hori dela eta, balorazioak egiteko, ezinbestean hartu behar dira kontuan SPKLk ezarritakoaren arabera, betiere eskaintza ekonomikorik abantailatsuena identifikatzeko ondorioetarako. Horiexek izan ziren proposamenak baloratzeko erabilitako irizpide bakarrak.

5. *“Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bitartez obrak kontratatzeke sei espediente izapidetu dira 833.003 euroren truke, bai eta beste 10 hornikuntza eta zerbitzu espediente ere 1.1 milioi euroren truke; gauzak horrela, ez da bete SPKLren 175. artikulua ezarritako publizitate printzipioa.*

EITBREN ALEGAZIOA II.1.1.5. ATALA DELA ETA:

Epaitegiak bi baieztapen egiten ditu, bereiz alegatu beharrekoak; izan ere, guztiz bestelakoak diren bi gertaerei eta zirkunstantziei buruzkoak dira.

Lehenengo eta behin, Epaitegiak agerian jartzen du 2009an obrak kontratatzeke sei (6) espediente eta hornikuntza eta zerbitzuak emateko beste hamar (10) espediente publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bitartez eskaini zirela; hori gertaera eztabaida ezina da.

Nolanahi ere den, gure ustetan, ez da bidezkoa Epaitegiak gertaera horretatik ateratzen duen ondorioa; esan nahi baita, ezin ondoriozta daiteke *“SPKLren 175. artikulua ezarritako publizitate printzipioa bete ez denik”*.

Aldez aurretik, azpimarratzekoa da Aholkularitza Batzorde batzuek agerian jarri duten SPKLren legegintza hutsunea; izan ere, herri administrazio ez diren botere adjudikatzaileek eta botere adjudikatzaileerik ez duten erakundeek publizitaterik gabeko prozedura negoziatura jotzeko aukera izan dezakete.¹

Izan ere, herri administrazio diren botere adjudikatzaileei dagokienez, SPKLren 153. artikulua eta hurrengoek beren-beregi jasotzen dituzte bete beharreko baldintzak; hala eta guztiz ere, herri administrazio ez diren botere adjudikatzaileek egiten dituzten eta arauketa harmonizatura loturik ez dauden kontratuei dagokienez, ez dago inolako arau zehatzik, eta are gutxiago botere adjudikatzailearen izaera ere ez duten erakundeei dagokienez.

Kode Zibilari buruzko 4.1. artikulua ezarritakoarekin bat etorritik, herri administrazioaren izaera duten botere adjudikatzaileentzat jasotako arauen interpretazio analogikoa eginez

¹ 4/2008 Txostena, Kanarietako Gobernuaren Administrazio Kontratazioko Aholkularitza Batzordearena



gero, zehaztu beharra dago SPKLren 161. artikulua 1. idatz-zatiak prozedura negoziatua erabiltzeko aukera ezartzen duela obra, hornikuntza eta zerbitzu kontratuetan publizitaterik egin gabe.

Ikusten denez, publizitaterik gabeko prozedura negoziatua erabiltzeko garrantzitsua honakoa da: SPKLn eta doktrinan ezarritako baldintzen arabera zenbait zirkunstantzia baterabiltzea. Gauzak horrela, izaera murriztailearekin, EITBk bere kontratazio arauetan (jarraibideak) ezarri zituen publizitaterik gabeko prozedura negoziatua jotzeko aukera ematen zuten baldintzak (objektiboak eta kuantitatiboak), betiere SPKLk ezarritakoarekin bat etorritik.

Horrela bada, sei (6) obra kontratuen eta hamar (10) hornikuntza eta zerbitzu kontratuen gaineko espediente hauei gagozkielarik, egiaztatu da publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez espediente bakoitza lizitazioan ematea ahalbidetzen zuten zirkunstantziak egon direla, betiere Kontratazio Jarraibideari buruzko Gidaliburuen eta SPKLren arabera.

Bestalde, Epaitegiak berak espedienteetako dokumentazioan ziurtatu ahal izan duen bezala, aipatutako espediente guztietan gutxien-gutxien kontratuaren gaia aurrera eramateko 3 enpresa gaituri beharrezko eskaera helarazi zitzaizkien, betiere SPKLren 162.1. artikulua 2. paragrafoan ezarritakoarekin bat etorritik.

Azaldutako irizpidea Estatuaren Kontratazioari buruzko Aholkularitza Batzordearen zenbait txostenetan agertzen den bera da (2004ko martxoaren 30eko eta ekainaren 7ko eta 2006ko urriaren 30eko txostenak eta 57/03, 11/04 eta 35/06 espedienteak); horiek zenbait kasutan aholkularitza eta laguntza kontratuei eta Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen 210. artikulua b) hizkiari dagozkie, baina SPKLren beste kontratu batzuei ere aplikatu dakizkieke erraz asko.

Hala eta guztiz ere, publizitateari gabeko prozedura negoziatua erabiltzeko aukeraz denaz bezainbatean, esan beharra dago EITBk 2009ko abenduan Kontratazio Jarraibideei buruzko 2. Gidaliburua onetsi zuenetik prozedura hori apenas erabiltzen dela eta gardenagoak diren beste prozedura batzuk hautatzen direla, esate baterako prozedura irekia.

6. "SPKLk ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak kontratatuzeko ezarritako adjudikazio prozedurak (2.9 milioi eurokoak) albo batera utzi dira; horiek banaka-banaka kontuan harturik, arauketa harmonizatuari loturik egongo ziren".

EITBREN ALEGAZIOA II.1.1.6. ATALA DELA ETA:

Ondasunak eta zerbitzuak eskuratzeko adjudikazio prozesua albo batera utzi dela adierazten duen ohartarazpenari dagokionez ("*horiek banaka-banaka kontuan harturik, arauketa harmonizatuari loturik egongo ziren*"), zehaztu beharra dago, lehenengo eta behin, Epaitegiak aipatzen dituen bost espedienteetatik bi gutxienez (grabaziorako helikopteroaren zerbitzua eta grafismoa) SPKLren II. eranskinaren 26. kategoriaren barruko zerbitzuei dagozkiela, eta, horrenbestez, ez daudela inola ere kontratazio harmonizatuari loturik.



Bigarrenik, komeni da argitzea aipatutako 5 espedienteak 2008ko urtearen aurretik esleitutako kontratazioei dagozkiela. Horietan guztietan 2009ra arte luzatzen ziren iraupen epeak ezartzen ziren eta horiek deuseztatzeko kostua ekonomikoki garestiagoa zen haien indarraldia agortzea baino.

Edozein kasutan ere, egiazta daitekeenez, horiek guztiak berriro ere lizitazioaren pean jarri dira 2010 eta 2011n zehar.

II.1.2 ATALA. LANGILEEN KONTRATAZIOA.

7. *“5/1982 Legearen 16. artikulua aldarazten duen 4/1996 Legearen 1.2. artikulua zuzendari nagusiari ahalmenak ematen dizkio “profesionaltasunaren irizpideen arabera erakunde publikoaren eta haren sozietateen zuzendaritza langileak izendatzeko, aldeztuz aurretik izendapen horiek administrazio kontseiluari jakinaraziz”; hala eta guztiz ere, ez da definitzen zein den zuzendaritza langileen figura.*

Kontuak kontu, 5/1982 Legearen 47. artikulua ezartzen du lan arloko legerian ezarritakoak eraenduko duela erakunde publikoaren eta haren sozietate publikoen langileria (47.1. artikulua) eta, halaber, ezartzen du erakundearen eta haren sozietateen langileak deialdi publiko bitartez hautatuko direla, meritu eta gaitasunari buruzko printzipioetan oinarri hartuz.

130/1999 Dekretuarekin bat etorrituz, EITBk “goi kargu” legez lau pertsona hartzen ditu bere gain eta, gainera, kargu horietarako nahitaezko goi zuzendaritzako kontratua ezartzen du.

2009ko ekitaldian 21 pertsona izan zuten zuzendaritza postu funtzionalarako sarbidea; horretarako, bada, arestian aipatutako 4/1996 Legeak aldarazitako Erakundearen Sorkuntza Legearen 16. artikulua ezarritako “profesionaltasunari” buruzko kontzeptua aplikatu zen.

21 pertsona horietatik hamaikak ez zeukaten aldeztuz aurretik kontratu erlaziorik erakundearekin eta ez ziren goi kargu gisa agertzen; nolana ere den, kontratatuak izan dira lan kontratu finkoen bitartez. Horrenbestez, ez da 5/1982 Legearen 47. artikulua betetzen.

EITBREN ALEGAZIOA II.1.2.7. ATALA DELA ETA:

TVCP-HKEEren txostenaren atal honen sarrerak zuzen adierazten duen bezala, gaur egungo legerian ez dago definiturik “zuzendaritza langileak” diren figura. Aipatutako definizio eza enpresa pribatuen esparru orokorrean ez ezik erakunde eta enpresa publikoen esparruan ere izaten da; azken horietan, zuzendaritza langileei buruzko kontzeptua zirkunstantzien arabera erabiltzen da goi zuzendariaren figura (abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuari lotua), goi zuzendaritzakoak ez diren zuzendaritza funtzionalak eta modu arruntean “tarteko burutza edo agintaritzak” gisa ezagutzen direnak identifikatzeko, bai eta



enpresaren erregimenean hitzarmen kolektiboaren aplikaziotik at dauden bestelako figurak identifikatzeko ere.

Nahasmendu terminologiko hori berdin aplika dakioke EITB erakunde publikoari, ez baitago enpresa publiko eta pribatuei aplikagarri zaien legezko manurik bakar bat ere, ez eta EITBrentzako manu zehatzik ere, arau bidez zuzendaritza langileei buruzko kontzeptua mugatzen duenik. “Goi kargu” iritzitako kasu zehatza bazter utzirik (horien gainean haien zuzendaritza izaerak eta identifikazioak definitzen duen administrazio eta lan erregulazio zehatza dago: batez ere EAeko otsailaren 23ko 130/1999 Dekretua, martxoaren 7ko 41/2000 Dekretua eta abuztuaren 1eko 1382/1995 Errege Dekretua), ez dago, alde batetik, zuzendaritza langileei buruzko kontzeptuaren “perimetroa” mugatzen duen legezko araubiderik ez eta, bestetik, haien hautaketa eta kontratazio sistema arautzen duenik ere. Horren ondorioz, legezko hutsune hori aintzat harturik, interpretazio zeregina egin behar da, egin-eginean ere zuzenbidearen arau orokorren ikuspegitik egin beharreko zeregina, bai *administrazio* ikuspegitik bai *lan* ikuspegitik.

Legezko hutsune horren jakitun, TVCP-HKEEK, erakunde publikoaren aurreko ekitaldietako fiskalizazio txostenetan, ez zuen beren-berregiko iritzirik eman EITBko tarteko burutza edo karguen “zuzendaritza langile” izaerari buruz (langile mota horiek berdintasun, meritu eta gaitasunari buruzko irizpideetatik salbuetsita daude), izendapen askearen aukera onartuz, inolako eztabaidarik gabe, zuzendari karguaren izendapena onartzen duen bezala. Ez dugu ulertzen TVCP-HKEEK 2009ko ekitaldiko fiskalizazio txostenetan izandako iritzi aldaketa; izan ere, indarreko legeriaren ez-betetzetat hartzen du aurreko ekitaldietako ikuskapenetan ez-betetzea izan ez zena. Gauzak horrela, gai honi dagokionez, hitzez hitz aipatu behar dugu 1999tik 2003ra arteko ekitaldietan EITB taldea fiskalizatzeko txostenetan adierazten dena:

“Aipatutako 103 postuak estaltzeko erabilitako prozeduraren gainean bi gogoeta egin behar dira:

- a) Erakundearen irizpidearen arabera zuzendaritzako zereginak dituzten postuei dagokienez, ez dira bete 5/1982 Legearen 16.2.f artikulua ezarritako beharkizunak (*profesionaltasuna, organigrama onetsia, alde aurretiko jakinarazpena*).
- b) Erakundearen irizpidearen arabera zuzendaritzako zereginak ez dituzten postuei dagokienez, ez da bete lege horren 47. artikulua (*publizitatea, meritu eta gaitasuna*). ”

Horren ondoren, antzeko aipamenak egiten dira 2006, 2007 eta 2008ko ekitaldiak fiskalizatzeko txostenetan; horietan TVCP-HKEEK, zuzendaritza langileei buruzko kontzeptuaren erdiespenari buruz dagoen legezko hutsunearen jakinaren gainean egonik, bi aukerak onartzen ditu:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Enpresaren organigrama ofizialaren postu guztiak zuzendaritza langiletzat hartzea eta, horren ondorioz, erakunde publikoaren zuzendaritza nagusiaren izendapen askearen aukera onartzea horiek guztiak konfiantzako karguak diren neurrian, behin haien profesionaltasuna edo postuaren araberako egokitasuna egiaztatua izan eta gero.
- Organigramaren barneko burutzetako postuak zuzendaritza langiletzat ez hartzea eta, horren ondorioz, merituari eta gaitasunari buruzko printzipioak aplikatu behar izatea.

TVCP-HKEEEK 2009ko ekitaldiari buruz egindako txostenean hartutako jarreraren funsgabetasuna ikusten dugu, are gehiago aintzat hartzen bada jarrera horrek 2009an izandako izendapen berriei bakarrik men egiten diela; izan ere, aurreko ekitaldietako izendapenen gaia ez da kolokan jarri, nahiz eta izendapenok txosten honek aipatutako hamaiken zirkunstantzia berberetan egon. Ondorio hauetarako, hona hemen 2006ko ekitaldia fiskalizatzeko txostenak gai honi buruz aipatzen duena:

“2006ko ekitaldian erakundearen zuzendari nagusiak 3 pertsona izendatu ditu ETBko zuzendaritza postuak betetzeko. 5/1982 Legearen 16.2. artikulua erakundearen zuzendari nagusiari ematen dio langile mota horiek izendatzeko zeregina, behin administrazio kontseiluari jakinarazita. Komunikazioa eta berrespena izendapenaren ondoren gauzatu dira”.

Bi aukerak onartzeko ildo bera aipatzen du 2007ko ekitaldia fiskalizatzeko txostenak:

“2007ko ekitaldian izendapen askeko prozedura bitartez 7 postu bete dira, erakundearen zuzendaritzaren ustetan EITB erakunde publikoaren sorkuntzari buruzko 5/1982 Legearen 16.2.f artikulua exijitutako profesionaltasun irizpideen erabilerari loturik daudenak; lanpostu horiek betetzeko, erakundearen langileak ziren pertsonak erabili dira, 4 aldi baterako langileak eta beste 3rak finkoak. Ez dago langile horiek hautatzeko erabilitako irizpideen ebidentziarik, 5/1982 Legearen 16.2.f artikulua ezarritako eskakizunak betetzen direla bermatzen duenik (profesionaltasuna eta kontseiluari alde aurretik jakinaraztea) zuzendaritza arloko zereginak dituzten postuetan edo lege horren 47. artikulua ezarritakoen ebidentziarik (publizitatea, meritua eta gaitasuna) gainerako kasuetan”.

TVCP-HKEEEK 2008ko ekitaldiaren gainean egindako txostena biribilagoa da; txosten hori EHAAn argitaratu zen 2012ko urtarrilaren 27an, hau da, 2009ko ekitaldia fiskalizatzeko emaitzak jaso baino 2 hilabete lehenago eta aipatutako izendapenak izan eta 2 urtera:

“2008ko ekitaldian zehar izendapen libreko prozedura bitartez 7 lanpostu bete dira jada Sozietateko langile ziren pertsonekin, Sozietatearen zuzendaritzaren iritzira EITB Ente Publikoaren 5/1982 sorrera Legearen 16.2.f artikulua eskatutako



profesionaltasun irizpideak erabiltzeari meneratzen zaizkionak. Ez dago langile horiek hautatzeko erabilitako irizpideen ebidentziarik, 5/1982 Legearen 16.2.f artikuluan xedatutako eskakizunak bete direla bermatzen dutenak (profesionaltasuna eta Kontseiluari aldez aurretik jakinaraztea), zuzendaritza eginkizunak gauzatu behar diren lanpostuetan”.

Laburbilduz, gure ustetan eta TVCP-HKEEk betetzen duen zeregina begirune osoarekin tratatuz, 2009ko ekitaldia fiskalizatzeko emaitzen ondorioetan funsgabetasun argia ikusten dugu, betiere aurreko ekitaldiak fiskalizatzeko txostenek gai beraren inguruan adierazitakoarekin alderatuta.

Edozein kasutan ere, aipatutako legezko hutsune horretatik abiatuta, badirudi arrazoizkoagoa eta zuzenagoa dela 2009ko ekitaldiaren aurretiko fiskalizazio txostenetan bi aukerak onartzeko izandako jarrera, harik eta gai hori legez argi eta garbi arautu arte. Guztiarekin ere, eztabaida honen izaera juridiko hutsaren jakinaren gainean egonik, zuzendaritza honek defendatzen du 2009ko ekitaldia fiskalizatzeko txostenak aipatutako konfiantzako kargu guztien “zuzendaritza langileen” izaera, betiere ondoren zehazten diren arrazoiak direla eta.

Ondorio horretarako, dagoeneko existitzen den legezko arautegitik abiatu beharra dago; horretan, behar adinako argitasuna ematen du EITB erakunde publikoa arautzen duen maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak, bai eta ondoren egindako aldarazpenek ere.

Izan ere, erakunde publikoa arautzen duen 5/1982 Legeak ezartzen du zuzendari nagusiari dagokiola erakunde publikoaren eta haren sozietateen zuzendaritza langileak izendatzea profesionaltasun irizpideen arabera, izendapenok administrazio kontseiluari aldez aurretik jakinarazita (5/1982 Legearen 16.2. artikulua f hizkia). Horren ondorioz, erakunde publikoaren zuzendari nagusiaren eskumen eskusiboa da erakundearen zuzendaritza langileak izendatzea, profesionaltasunaren irizpidearen edo posturako egokitasunaren arabera. Zuzendaritza eremuei dagokienez, ahalmen hori ulertu behar da zuzendaritza taldea osatuko duten profesionalak hautatzeko gaitasun gisa, bai enpresa publikoan bai pribatuan, bai *strictu sensu* administrazioan bertan ere, betiere postu horietan izan beharreko konfiantza bereziko baldintzak direla eta. Horregatik, ohikoa da eta legez aintzatesten da konfiantza bereziko zuzendaritza postuak beteko dituzten profesionalak hautatzeko eta izendatzeko izendapen askea.

Horrek berekin dakar enplegu publikoa eskuratzeko berdintasun, meritu eta gaitasunari buruzko irizpide orokorrak (martxoaren 27ko 8/1988 Legeak aldarazitako 5/1982 Legearen 47.2. artikulua ezarritakoak) aplikagarriak ez izatea erakunde publikoaren eta haren sozietateen zuzendaritza langileei dagokienez. Izan ere, gorago aipatutako manuak ezartzen du “erakundearen eta haren sozietateen langileak deialdi publiko bitartez hautatuko direla meritu eta gaitasunaren printzipioetan oinarritutako sistemen arabera”, eta horrek “langile” terminoari egiten dio men, hau da, erakundearen eta haren sozietateen langileei, lanpostu finkoa horretarako deitutako deialdi publikoaren bidez lortzen dutenei, eta ez zuzendaritza langileei; izan ere, azken horiek, konfiantzako langile gisa duten izaera dela eta, ez dira erakundearen eta haren sozietateen langile zerrendaren zati.



Horren ondorioz, arau orokor hori ezin aplika dakieke zuzendaritza langileei, honako arrazoi hauek direla eta:

LEHENA: erakunde publikoaren eta haren sozietateen organigrama zuzendari nagusiak proposatzen du eta administrazio kontseiluak onesten du (EITB erakunde publikoa arautzen duen 5/1982 Legearen 16.2. artikulua f hizkia). Administrazio kontseiluari dagokio erakundearen eta haren sozietateen zuzendaritza organigramaren egitura eta osaera definitzea, behin erakunde publikoaren zuzendari nagusiak proposatu eta gero.

BIGARRENA: erakunde publikoaren eta haren sozietateen zuzendaritza langileen izendapena zuzendari nagusiari dagokio, administrazio kontseiluak esku hartzen duen prozedura baten bitartez (16.2. artikulua f hizkia); hori alde aurretik jakinarazi beharra dago eta ezin da zuzendaritza langilerik izendatu behar bezala onetsia izan den organigramaren barruan sarturik ez dauden lanpostuetarako.

HIRUGARRENA: sozietate publikoen zuzendariak edo, hala badagokio, erakunde publikoaren zuzendari nagusia izango dira administratzaile bakarrak eta sozietate anonimoei buruzko legeriak haiei begira ezarritako ahalmenak eta beharkizunak izango dituzte (martxoaren 27ko 8/1998 Legeak aldarazitako 5/1982 Legearen 40.2. artikulua). Merkataritza arloko legeria horrek sozietate baten administratzaile bakarri ematen dizkion ahalmenen barruan sartzen da sozietateko zuzendaritza langileak izendatzeko.

LAUGARRENA: EITBren eta haren sozietateen hitzarmenek eurek ere aintzatesten dute zuzendari nagusiak buruztako karguak izendatzeko daukan ahalmen hori; izan ere, konfiantza bereziko karguak izanik, honakoa ezartzen du hitzez hitz: "Buruzagitzako karguak Zuzendaritzaren eskuko izendapen eta errelokazio librekoak dira eta, ondorengo atala dagokien pertsonentzat eta hauek gaurregun duten karguetarako izan ezik ez dira Hitzarmen honetan sartuko" (EUSKAL TELEBISTAREN hitzarmen kolektiboaren 24. artikulua). Esan nahi baita, enpresaren hitzarmen kolektiboan onartzen da izendapen eta baliogabetze askeko karguak daudela, eta horiek langile zerrenda finkoko postuen bestelako araubide juridikoa daukatela. Hitzarmen kolektiboek euren aplikazio eremutik salbuesten dituzte izendapen askeko zuzendaritza langileak (EITBren hitzarmen kolektiboaren 2. artikulua A hizkia) eta, ondorioz, postu horien izendapen askearen izaera onartzen dute. Horren ebidentzia da ez direla azaltzen hitzarmen kolektiboaren lanbide kategorien zerrendan, zuzendaritza nagusiak askatasunez izendatzen eta baliogabetzen dituelako, egokitzat jotzen dituen antolakuntza irizpideen arabera.

BOSGARRENA: arestian azaldutakoarekin bat etorritik, izendapen askeko edo konfiantzako kargu horiek erakundearen langile zerrendaren bestelako araubide juridikoa daukate, hitzarmen kolektiboaren aplikazio eremutik kanpo, haien lan kontratuan beren-beregi jasotzen den bezala; izan ere, kontratuan berariaz adierazten da haien izendapena



zuzendari nagusiak egiten duela, aldez aurretik administrazio kontseiluak onetsitako organigramaren arabera. Horregatik, zuzendaritza arloko kontratu horiek guztiak erakundearen zuzendari nagusiak izenpetu eta sinatzen ditu. Halaber, lan kontratu horiek, izendapen askeko karguak direnez gero, ezartzen dute zuzendari nagusiak zuzendaritzako karguak baliogabetzeko daukan aldebakarreko ahalmena, bai agintaldia amaitu delako bai bestelako edozein arrazoi dela eta.

SEIGARRENA: zuzendaritza langileei berdintasun, meritu eta gaitasunari buruzko irizpideak aplikagarri izanez gero, ezinezkoa izango litzateke zuzendaritza nagusiak postua uztaraztea edo baliogabetzea, langilek kargu hori finkaturik izango lukeelako, hautapen proba egokien bitartez bidezketasunez eskuratu eta gero. Horren ondorioz, finkapen hori ez da bateragarria zuzendariak Eusko Legebiltzarrak aldarrikatutako lege bati esker daukan izendapen eta baliogabetze askeko ahalmenarekin.

Printzipio hauek ikusita (printzipio eztabaida ezinak, legez edota ohiko aginduz derrigorrean bete beharrekoak diren aldetik), ondorioztatzen da zuzendaritza langileen izaera zehazteko giltzarria enpresaren organigrama ofiziala dela, baldin eta organigrama arau bidez ezarritakoaren arabera zuzen onetsita badago. TVCP-HKEEK fiskalizatutako 2009ko ekitaldian, EITBko administrazio kontseiluak onetsi du organigrama hori, TVCP-HKEEK aztertutako EITBren administrazio kontseiluaren aktak ikusi ondoren Epaitegiak berak dakien bezala; hala ere, TVCP-HKEEK ez du onesten hori kolokan jartzen. Horrek esan nahi du zuzendari nagusiak erakunde publikoaren eta haren sozietateen organigraman agertzen diren zuzendaritza langileen izendapenak osatu ahal izango dituela edo ez, eta, egokituz joz gero, organigraman beharrezkotzat jotzen dituen aldarazpenak sustatu ahal izango dituela; azkenik, horien onespina administrazio kontseiluari egokituko zaio.

Laburbilduz, onetsitako indarreko organigrama da ondokoak finkatzen dituen:

- Zuzendaritza langiletzat hartzen diren zuzendaritza eta burutza karguak.
- Organigramaren kargu horiek betetzen dituzten profesionalak.

Gure tesiak berresteko, Herri Kontuen Euskal Epaitegiko zenbait kidek aurreko ekitaldietako txostenetan emandako boto partikularretara jotzen dugu (ikus 2006ko ekitaldia fiskalizatzeko txostena); izan ere, horiek defendatzen dute erakunde publikoaren zuzendari nagusiak zuzendaritza langileak izendatzeko daukan zalantzarik gabeko ahalmena, aldez aurretik behar bezala onetsitako organigrama egonez gero.

EITBk 2009ko ekitaldian izendatu eta txosten honetan aipatutako hamaika zuzendaritza karguei dagokienez, informazioa emateko, adierazi beharrean gaude horietariko batzuk honako kargu hauek direla: EITBko zuzendari komertziala, EITBko albistegietako zuzendaria, Radio Euskadi irratia zuzendaria, Radio Vitoria irratia zuzendaria, Radio Euskadi



irratiko albistegietako burua, ETBko gizarte arloko burua edo Euskadi Irratiko programa burua; horiek guztiek zuzendaritza izaera argia daukate; izan ere, erantzukizun maila handia daukate (goi zuzendaritzatik oso hurbil eta haren menpean), aurrekontua kudeatu behar dute, agintepean langile ugari dituzte eta bestelako zirkunstantzia objektiboei ere aurre egin behar diete. Horiek guztiek haien zeregina zuzendaritza arlokoa izatea eragiten dute.

Egoera hori ere berresten da ikus-entzunezko komunikaziorako izaera publikoko beste erakunde batzuetan EITBren antzeko kasuak azaltzen direlako; horietan ere izendapen askeko edo konfiantzako zuzendaritza langileen existentzia (zuzendaritzak eta burutzak) onartzen da, enpresaren langile zerrenda finkoaren bestelakoak diren karguak, alegia. Ondorio horietarako, erreferente argi modura, RTVE (Espainiako Irrati eta Telebistaren Erakunde Publikoa) aipa dezakegu; izan ere, erakunde horretan zuzendaritza langileztartzen dira zuzendaritza nagusiak izendapen askearen bitartez izendatutako zuzendari karguak nahiz tarteko aginteak, eta gai hori ez da kolokan jarri Kontu Epaitegiak egindako fiskalizazio txostenetan, RTVEko zuzendari nagusiaren eskumen esklusiboa den izendapen askeko zuzendaritza langileen existentzia onartzen duelako, baldin eta izendapenok behar bezala onetsitako RTVEren eta haren sozietateen egitura organiko ofizialaren babesa badute. Ildo horri jarraituz, Espainiako Irrati eta Telebista Taldearen Langileen Kudeaketaren Fiskalizazioari buruzko 2002-2004ko ekitaldietako Txostena aipatu behar dugu, ez baitu kolokan jartzen izendapen askeko zuzendariaren kontrataziopeko zuzendaritza karguen existentzia. Berrikiago, RTVE taldearen 2008ko ekitaldia fiskalizatzeko txostenak harago jo eta onartu du behin betiko lan kontratuaren aukera, ez bakarrik RTVEko organigramako zuzendaritza postuei begira baizik eta zuzendaritzakoak ez diren bestelako langileei begira ere (aurkezleak, artistak eta abar); eta, horregatik, fiskalizazio txosten horietan ez da inolako irregulartasunik ondorioztatu. Edozein kasutan ere, azken kasu hori ez da EITBren eztabaida, eztabaida zuzendaritza langileen esparrura bakarrik mugatzen delako; beraz, gai honetan ez gara gehiago luzatuko.

Zuzendaritza langileak hautatzeko eta izendatzeko ahalmen bera ematen zaie FORTAN (Autonomia Erkidegoetako Irrati eta Telebisten Erakundearen Federazioa) bildutako ikus-entzunezko erakunde edo korporazio publiko autonomikoetako zuzendari nagusiei; ahalmen hori haien lege arau-emaielen bitartez ematen zaie.

Beste askoren artean ere, Madrilgo Justizia Auzitegi Nagusiaren urriaren 18ko 470/2002 eta martxoaren 18ko 384/1998 eta 1997ko uztailaren 3ko AS/1997/2620 epaiak aipatu behar ditugu, bai eta Valentziako Justizi Auzitegi Nagusiaren uztailaren 16ko 2579/2008 epaia ere; izan ere, horietan guztietan zuzendari nagusiaren izendapen askeko zuzendaritza langileen existentzia (goi karguak izan gabe) onartzen da ikus-entzunezko komunikaziorako erakunde publikoen eremuan.

Laburbilduz, EITBren eta haren sozietateen zuzendaritza langileen kasuan, ikusten dugu kargu batzuk daudela eta horiei ezin zaizkiela aplikatu EITBko langile zerrenda finkoari aplikagarri zaizkion meritua eta gaitasunari buruzko irizpide orokorrak (EITBko sorkuntzari buruzko 5/1982 Legearen 47. artikulua, martxoaren 27ko 8/1998 Legeak aldarazitakoa), ezpada profesionaltasunari buruzko irizpidea, betiere urriaren 11ko 4/1996 Legeak aldarazitako 5/1982 Lege bera dela bide, aintzat hartu behar baita erakunde publikoaren



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

zuzendari nagusiaren izendapen askeko langileak direla. Hori ez da inolako diskriminazioa, Konstituzio Auzitegiak (STC 190/2001) RTVEko antzeko kasu baterako onartzen duen bezala:

“Zuzendari nagusiek izendatutako zuzendariek –betiere legeak eman eta jarraibideek zehazten duten ahalmenaren arabera– lanpostua eskuratzen dute inolako probarik egiteko betebeharririk gabe; hori, bestalde, bat dator erlazio berezi hori euskarrizten duen konfiantza oinarriarekin. Zuzendaritza langileek euren erlazioaren sorreran gozatzen duten baina RTVEen lan zerbitzuak ematen dituzten gainerako langileek ez daukaten onura hori gertakari bereizgarria da, betetzen duten zereginetik eta hori erregulatzen duen arautegitik sortzen dena; horrek ez du ondorioztatzen uzten berdin tratatu beharreko egoera berdinak direnik”.

Behin erakunde publikoaren zuzendaritza nagusiak zuzendaritza langileak izendatzeko daukan ahalmenaren oinarriak jarri eta gero, TVCP-HKEEren txostenaren III. atalak (“barne kontrolaren sistemari eta kudeaketa prozedurari buruzko gogoetak”), langileriarri buruzko III. 2. idatz-zatian, “zuzendari nagusiaren agintaldiari lotutako kontratazio prozedura bat” (goi zuzendaritzako kontratua, obra kontratua edo baliokideak) ezartzeko egindako gomendioaren inguruan honakoa adierazi nahi dugu langile mota horiek kontratatzeke modalitateei dagokienez:

1.- TVCP-HKEEk kasu horietarako iradokitzen dituen aldi baterako izaerako kontratazio aukerak (EITBk zuzendaritza langile horientzat egindako kontratazio finkoaren alternatiba gisa) ez ditu erakunde publikoak sortzen, baizik eta, legezkotasunaren printzipioa dela bide, indarreko lan legeriak ezarritakoak dira, eta erakunde publikoak ezin asma dezake bere kontratazio arazoei aurre egiteko edo bere premiak ondoen asebetetzeko kontratazio aukerarik.

Jurisdikzio Sozialeko epaileek eta auzitegiek behin baino gehiagotan adierazi dutenez, “aldeek ezin dute lan kontraturik eratu euren borondate askearen arabera eta legez ezarritako modalitateetatik kanpo. Aldi baterako kontratazio kasuen ezarpenak eta haien beharkizunek, Langileen Estatutuen 11. eta 15. artikuluetan jasotakoek, aldeentzako nahitaezkoa den zuzenbide muina osatzen dute”. (Enuntziatua izateko asmo hutsarekin, sarri berretsia izan den jurisprudentiaren gainean, Auzitegi Gorenaren 1999ko urriaren 26ko epaia aipatu behar dugu).

2.- TVCP-HKEE txostenak aipatutako aukerei dagokienez (“goi zuzendaritzako kontratua, obra kontratuak edo baliokideak), honakoa adierazi behar dugu:

- Goi zuzendaritzako kontratuaren gainean: kontratu aukera hori bakar-bakarrik egin daiteke kontratatutako zuzendariak enpresaren titulartasun juridikoari darizkion eta enpresaren helburu orokorreari lotzen zaizkion botereak egikaritzuz gero, autonomia eta erantzukizun osoarekin; autonomia eta erantzukizun hori bakarrik mugatu ahal izango



dute titulartasun hori betetzen duten goragoko gobernu eta administrazio organoen edo pertsonen zuzeneko irizpideek eta jarraibideek (goi zuzendaritzako langileen izaera bereziko lan erlazioa arautzen duen abuztuaren 1eko 1382/1985 Errege Dekretuaren 1.2. artikulua).

Justizi auzitegiek berretsitako jurisprudentziari dagokionez, zirkunstantzia horiek betetzen dituzten karguek baino ez dute goi zuzendarien izaera beteko, eta ez zaizkio zuzenbideari lotuko enpresaren eta langilearen artean sinatutako goi zuzendaritzako kontratuak, baldin eta beharkizun horiek betetzen ez badira; gainera, ez-betetzea egonez gero, kontratu horiek lan erlazio arrunta egituratzen dute. Beste modu batera esanda, aurreko baldintzak betetzen ez dituzten zuzendaritza karguentzat goi zuzendaritzako kontratuak sinatzea legezko iruzurra da, irregulartasun bat, eta haren ondorioa da zuzendaritzako lan erlazio hori arrunt eta ohikotzat hartzea eta ez goi zuzendaritzakotzat. EITB eta haren sozietateen kasuan, horrek berekin dakar goi kargudunen legezko izaera ez duten zuzendariekin goi zuzendaritzako erlazio bereziko kontratuak izenpetzeko ezintasuna.

Ondorio horretarako, zehaztu behar dugu martxoaren 23ko 130/1999 Dekretuaren arabera dekretu horren aplikazio eremuaren barruan sartutako zuzendariak zuzenbide pribatuko erakunde publikoei eta haren sozietate publikoei loturik daudela goi zuzendaritzako kontratu berezi baten bitartez (4.1. artikulua). Arautegi zehatz honi jarraiki, goi karguek bakarrik izan dezakete eta izan behar dute goi zuzendaritzako kontratu berezia.

Laburbilduz, lan erlazioa arrunta eta goi zuzendaritzako ez-berezia bada, zuzenbidearen arabera ezinezkoa da kontratua deuseztatzen duen klausula bati eraginkortasuna ematea enplegatzaileak hala erabaki duelako; horrenbestez, klausula hori deuseza izango litzateke, Langileen Estatutuaren 49. artikuluan ezarrita ez dagoelako.

- Obra kontratuaren gainean: *obra edo zerbitzu* zehatzagatiko kontratua egin ahal izateko, obra edo zerbitzu horrek autonomia eta funtsa izan behar du enpresaren jardueraren barruan, eta haren burutzapenak, nahiz eta denboran mugaturik egon, iraupen zehaztugabea izan behar du, kontratuan zehatz-mehatz azaldu behar da kontratazioaren izaera eta haren gaia den obra edo zerbitzua behar bezala identifikatu behar da. Legezko beharkizun hauek ikusita (lan zuzenbidearen arabera nahitaez bete beharrekoak) zalantzarria da obra kontratu bat egitea enpresaren antolakuntzan egiturazkoak diren zuzendaritza edo burutza jarduerak egiteko. Auzitegien jurisprudentzia argia eta zehatza da eta egoera horri obra edo zerbitzuaren izaera ukatzen diote. Ezin da obra edo zerbitzu zehatzagatiko kontratua erabili enpresaren zeregin iraunkorrak egiteko, postua kargu zehatz bateko titularrak betetzen duen neurrian. Horrela, kontratu mota horiek ez lukete helburutzat izango zerbitzu edo obra baten lan prestazioan jardutea autonomia eta funtsarekin, baizik eta enpresan zeregin iraunkorrak betetzea; izan ere, burutzak eta tarteko aginteak beti existitu dira, zuzendaritza postu horiek betetzen dituzten pertsona zehatzak edozein izanagatik ere. Lan kontratuan zerbitzu urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina existituz gero (behin betiko kontratua deuseztatzeko, legez ezarritakoaren berdina), kontratu eredu hori zilegitzat jo da zenbait kasutan, nahiz eta zilegitasun hori gehiago egokitu zaion deuseztapena Langileen



Estatutuaren 49.1.b) artikulua bidez onartzeari obra edo zerbitzu zehatzagatiko kontratuaren zilegitasunari baino.

Horrela, kontratuaren behin-behinekotasunaren ondorioz, ez dago gure zuzenbidean eska daitekeen beharrezko kausaliterik; beraz, lege iruzurra sortuko litzakete eta horrek Langileen Estatutuaren 15.3. artikulua erregulatutako eraginak ekarriko lituzke. Erregulartasun horren ondorioa da aldi baterako lan erlazio faltsu hori behin betiko izaerako lan erlazio batera aldatzea (Langileen Estatutuaren 15.3. artikulua: “*Lege iruzurraz egindako aldi baterako kontratuak kontratu mugagabetzat hartuko dira*”). Ondorioz, benetako errealitatea TVCP-HKEEK saihestu nahi duen eta EITBn kritikatzeko duen berbera izango litzateke: izaera mugagabeko lan erlazio baten existentzia, erakundearen zuzendaritza nagusiak bere aldetik deusezta lezakeena konfiantzaren galera alegatuz, baina horrek kalte-ordainari begira dakartzan legezko ondorioekin. Justizi Auzitegiek gai honi buruz irmo ezarritako irizpidearen eta gaiari buruzko adierazpen judizialen jakitun gaude guztiz.

- Bestelako kontratu baliokideak: ez dakigu zeri egiten dion men TVCP-HKEEK “*kontratu baliokideak*” adierazpidea erabiltzen duenean. Arestian aipatu dugun bezala, aldi baterako kontratu modalitateak indarreko lan legerian beren-beregi jasotzen dira eta horiek *numerus clausus* dira, modalitate bakoitzarentzat erregulazio zehatz eta jakin batekin, eta ez dago inolako aukerarik EITBk sor edo asma ditzan legegileak sortutako izaera baliokidea izan dezaketean aldi baterako kontratuak. Ez da beharrezkoa esatea, EITBren izaera juridikoa zuzenbide pribatuko erakunde publiko batena izanik, aplikagarri zaizkiola lan arautegi orokorra eta kontratazio modalitateei buruzko arautegi zehatza, betiere Langileen Estatutuak eta ondorio horiei begira aplikatu daitekeen gainerako lan legeriak ezarritakoarekin bat etorriz. Aldeek ezin dute aldi baterako lan kontraturik eratu askatasunez, euren borondatearen arabera eta legez ezarritako kontratu motetatik kanpo.

Edozein kasutan ere, “kontratu baliokideei” buruzko adierazpideari dagokionez, aipatzekoa da TVCP-HKEEren txostenak aipatutako zuzendari bakoitzaren eta EITBren artean sinatutako lan kontratuetan beren-beregi agertzen den klausula; izan ere, TVCP-HKEEK ezagutzen dituen kontratu mota horien klausulak zuzendariaren kargu uztea ezartzen du zuzendari nagusiaren aldebakarreko erabaki bitartez. Klausula horrek, HAMARGARREN KLAUSULAK, honakoa adierazten du hitzez hitz:

“HAMARGARREN KLAUSULA: KONTRATUAREN SUNTSIARAZPENA:

Kontratu hau suntsiarazi ahal izango da bi alderdietarik edozeinek hala eskatuta, honako baldintza hau arabera:

- 1. Zuzendaritzaren erabaki bitartezko kargu-uzteagatiko suntsiarazpena: zuzendaritzaren erabaki bitartez izendapen askeko postua utzarazi edo baliogabetuz gero, XXXXXXXX jaunak edo andreak horretarako ezarritako legezko kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izango du. ”*



2009ko ekitaldian eta aurreko ekitaldietan EITBren eta zuzendaritza langileen artean sinatutako kontratu guztiek jasotzen dute klausula hori; klausulan, beraz, kontratuaren suntsiarazpena ezartzen da edozein momentutan zuzendari nagusiaren erabaki bitartez, bera baita kargua izendatzeko eta uztarazteko eskuduna den bakarra. Kargu uztea zuzendaria izendatu zuen zuzendaritza nagusiak erabaki ahal izango du edo geroagoko zuzendaritza nagusiak, *konfiantzaren* elementua falta delako edo galdu delako.

Gauzak horrela, jatorrian behin betiko lan erlazio baten aurrean egonik ere, praktikan kasu hau bat dator Langileen Estatutuaren 49.1. artikulua b) hizkiak ezarritako suntsiarazpen zioarekin: “lan kontratuan baliozkotasunez ezarritako suntsiarazpen zioa, horren barruan enpresaburuaren ageriko zuzenbide neurrigabekeria ez badago”. Kasu honetan ez dago langilearen kontrako neurrigabekeriarik; izan ere, aldebakarreko suntsiarazpen erabakia (konfiantza galdu dela eta) beren-beregi jasotzen da kontratua izenpetzen den unetik bertatik eta, gainera, legez ezarritako kalte-ordainaren ordainketa zehazturik dago. Horrek ahalbidetzen du zuzendaritza nagusiaren alde bakarreko kargu uztearen kasuan langilearen eskubide legitimoak bateratzea erakunde publikoak lan merkatuan bere zuzendaritza kudeaketarako profesional egokiak eskuratzeko daukan premiarekin.

Gure iritziz, kontratu arloko irtenbide hori aproposagoa da eta hobeto egokitzen zaio lan legeriari, eta TVCP-HKEEK *“bestelako kontratu baliokideak”* aurkitzeko egindako gomendioaren arabera da. Egoera honek kolektibo honen berezitasun juridikoak egokiro konpontzen ditu, lan zuzenbidearen beharkizunen eta enplegu publikoa eskuratzeko eska daitezkeen beharkizunen arteko beharrezko orekari eusten baitio.

Laburbilduz, azaldutako guztia dela eta, gure iritziz, ez da bidezkoa fiskalizazioa txostenean II.1.2 LANGILEEN KONTRATAZIOA epigrafearen 7. puntua sartzea, ez eta III BARNE KONTROLAREN SISTEMARI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK epigrafearen langileei buruzko III. puntua sartzea ere.

II.1.2.1 ATALA. ALDI BATERAKO LAN KONTRATUDUN LANGILEAK

8. *“Lehendik bazen lan poltsa bat erabiltzeak, eta izangaien merezimenduak eta gaitasunak sailkatzen ez dituenak, ez du bermatzen, aldi baterako lan kontratudun langileak 2009an kontratatzeari dagokionez, 5/1982 Legeak arautzen dituen merezimendu eta gaitasun printzipioak.*

Eusko Irratia erakundeko langile finkoentzako 2009ko LEP amaituta, 2010eko urrian, Eusko Irratia erakundeko aldi baterako langileentzako lan poltsa behar bezala sailkatuta dago.”

EITBREN ALEGAZIOA III.1.2.8 ATALA DELA ETA:

Aldi baterako lan kontratudun langileak kontratatzeko lan poltsari dagokionez, aurreko ekitaldi batzuetako alegazioetan esandakoekin bat etorriz, honako hau adierazten dugu:



SAILKAPEN OKERRA DELA ETA:

Aurreko ekitaldietan arrazoitu dugun bezala, EITBren lan poltsa 4 multzotan sailkatzen da, barne araudiz ezarrita dauden kontratazio prozedurei jarraiki. Sailkapen edo baremazio hori beste ikus-entzunezko erakunde nahiz korporazio publikoek darabiltenaren berdina da. Ondore horietarako, RTVE (Radio Televisión Española) aipatuko dugu. Erakunde horretan datu bankura sartzeko moduak zehazten dira –Kontu Epaitegiaren 2002-2004 aldiko Fiskalizazio Txostenaren hitzez hitzezko aipamenak jaso ditugu –, eta modu horiek ondokoak izan daitezke:

- Berariazko proba bat gainditzea.
- Datu bankura sartzeko behar den puntuazioa lehiaketa oposizio askeetan lortzea, betiere horien bitartez lanpostu finkoa eskuratzen ez bada.
- Bekaduna izatea, RTVEk sinatutako hitzarmenei jarraiki.
- IORTV (Instituto Oficial de la Radiotelevisión) erakundearen promozio akademikoren batean parte hartzea.

RTVEra sartzeko multzoak EITBk erabili ohi dituenen berdinak dira, barne araudiz ezarritako kontratazio prozedurei jarraiki. Prozedura horiek urtero-urtero ikuskatzen dira ISO-9000 Kalitate Ziurtagiriaren arabera eta, ildo horretan, Kontuen Epaitegiak RTVEri egindako ikuskapenek ez dute inolako eragozpenik agertu.

Halaber, 2006ko Fiskalizazio Txostenean jasota dagoen TVCP-HKEEko kontseilariaren boto partikularren irizpideari helduko diogu. Irizpide horri jarraiki, EITBk aurkeztutako alegazioak ontzat jo zituela, *sailkatutzat* jo zituen EITBren lan poltsak eta erakundearen web orrialdean agertutakoak onetsi zituen, poltsei eman beharreko publizitateari dagokionez.

Nolanahi ere den, TVCP-HKEEko ordezkariak esan genien bezala, azken urteotan EITBk eta haren menpeko sozietateek egin dituzten lan eskaintza publikoen helburua lan poltsa barematuak sortzea da, LEP horietan lortutako emaitzen arabera, hautapen probak gainditu bai baina lanpostu finkoa eskuratu ez duten izangaiek osatutakoak.

Horrela egin ohi da EUSKO IRRATIA, S.A. erakundeari dagokionez 2009. urtetik aurrera. Urte horretan, hain zuzen ere, aipatutako erakundearen lan eskaintza publikoa amaitu zen eta berdin jokatu da EUSKAL TELEBISTA, S.A. erakundearen arabera, aribidean den LEP amaitzen denean. Hori gertatu bitartean, lan poltsa barematuak baliatzeko modua izatearren, erakunde publikoak aurreko lan eskaintza publikoetako emaitzak erabiliko ditu behin-behinean; hori horrela, lan eskaintza horietako emaitzen arabera, lanpostu finkoa eskuratu ez eta probak gainditu dituzten izangaiek lehentasuna izango dute aldi baterako kontratazioan. Horrez gain, lehentasuna izango dute LEP berrietako izangaiek LEP zaharretako izangaien aldean.

Azaldutako sistema prozeduretan sartu du EITBk erakundearen eta haren sozietateen Kalitate Sistemaren mekanismoen bitartez eta horrela argitaratzen da jendaurrean. EITBren



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

web orrialdea dela medio modu unibertsean jendaurrean jartzen den sistema berri horren hitzez hitzezko edukia ondokoa da:

“Lan poltsaren baremazio irizpideak lanbide mailen arabera:

Badago lehentasun ordena bat maila profesional eta sozietate bakoitzeko, eta ordena hori eratzeko hautagaien zerrenda barematua egiten da pertsonak honela ordenatuta: a) lehentasun irizpidearen arabera, eta b) irizpide bakoitzaren barruan, lehentasun ordenari jarraiki, handienetik txikienera, esperientziak ematen dituen puntuazioaren (5. irizpidean izan ezik) eta merezimenduen arabera.

1. irizpidea

Kategoria jakin baterako deitutako azken LEPan parte hartu duten eta, plaza finkoa lortu ez duten arren, eskatzen zen gutxieneko puntuazioa gainditu duten pertsonak. Zerrenda barematua hautagaien azken antolamenduaren araberakoa izango da.

2. irizpidea

Lanpostu jakin baterako deitutako azken LEPan parte hartu eta lanpostua lortzeko eskatutako gutxieneko puntuazioa lortu ez duten arren, proba bakoitzean hamar puntutik gutxienez bost lortu dituzten pertsonak. Toki jakin bat lortzen dute lan poltsako zerrenda barematuan lortutako puntuazioaren eta EITBko sozietateetan zein, egiaztatuz gero, kanpoko enpresetan lanpostu horretan izandako esperientziagatiko merezimenduen arabera.

3. irizpidea

1. lehentasuneko irizpide berberak, baina aurreko LEPak kontuan hartuta, LEPrik berrienetako emaitzek zaharrenetakoei gailentzen zaizkielarik.

4. irizpidea

Lanpostu jakin baterako deitutako azken LEPan parte hartu duten baina proba bakoitzean hamarretik bost puntu lortu ez dituzten pertsonak. Toki jakin bat lortzen dute lan poltsako zerrenda barematuan, lortutako puntuazioaren eta esperientziagatiko merezimenduen arabera.

5. irizpidea

LEPetan parte hartu ez duten arren, esperientziagatiko merezimenduak dituzten pertsonak EITBko sozietateetan lan egin dutelako edo, egiaztatuz gero, kanpoko enpresetan lan egin dutelako. Euskara maila egiaztatzeko proba kanporatzailea egin beharko dute eta, gaindituz gero, lehentasuneko tokia lortuko dute kasu honetan



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

esperientziagatiko merezimenduen arabera finkatutako lan poltsako zerrenda barematuaren azken talde honetan.

Azken batean, gure iritziz, behintzat, ez dago arrazoi biribilik ez lan poltsaren publizitatea ez horren sailkapena zalantzan jartzeko eta, horren ondorioz, publizitate, merezimendu eta gaitasunari lotutako irizpideak gaur egun betetzen direlakoan gaude.

"OSTEKO GERTAKARIAK" IZENEKO ATALA

“Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiko Ikuskaritzak errekerimendu-espeditatea ireki zuen 2009ko uztailan, Bilboko EI, S.A. enpresan kontratu merkantilarekin ziharduten pertsonak langile autonomoen erregimen bereziaren barruan kokatuta egoteko arrazoia ikuskatzeko. Ikuskapen-ekimenak, 2010eko maiatzaren 24ko errekerimenduaren arabera, frogatutzat eman zuen 46 kontratuk, erredaktore-esatari eta teknikari kategoriakoak gehienak, inoren konturako mendeko lanen ezaugarriak zituztela; EI, S.A. ren barruan halako lanei Erregimen Orokorreko kontratu laborala dagokiela; eta, horrenbestez, kontratuok atzerako eraginez tramitatu behar zirela, eta zegokien kotizazioa ordaindu behar zela. Kontratu berriak esandako dataren ostean sinatu ziren, laboral mugagabe ez-finko izaerarekin.

Halaber, 2010eko otsailan antzeko ikuskapen-ekimena hasi zen Donostiako Eusko Irratian, kontratu merkantilarekin ziharduten langileei zegokiena. Txosten honen datan amaitu barik dago ikuskapena».

B. TXOSTENAREN IRIZPENAK DIRELA ETA

III.1.1 ATALA. ARAUKETA HARMONIZATUAREN MENPEKO KONTRATUAK

- *“Ez dago jasota administrazio baldintza berezien agiria eskumendun organoak onartu duenik, eta ez dago baldintza horien inguruko txosten juridikorik; beraz, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen 121 eta 25. artikulua urratzen dira, hurrenez hurren.*

EITBREN ALEGAZIOA III.1.1; 1.:

Epaitegiaren esanetan, aurreneko hutsuneak dira administrazio baldintza berezien agiria kontratazio organoak onetsi ez izana eta administrazio baldintza horiei buruzko txosten juridikorik ez egotea.

Lehenik eta behin, Epaitegiak SPKLren 25. artikulua aipatzen du. Artikulu horrek hitzarmen askatasunaz dihardu sektore publikoaren kontratazio moduei dagokienez. Bigarrenez, legezko testu horren 121. artikulua aipatzen du. Artikulu horrek, baina, ez ditu inola ere prozeduraz ezartzen EITBk ustez alde batera utzi dituen bi izapideak.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Hala eta guztiz ere, Epaitegiak adierazitako prozedurazko hutsegitearen norainokoa argitzearen, esan dezagun administrazio baldintza berezien agiria eta baldintza horiei buruzko txosten juridikoa onartzeko izapideak SPKLren 99. artikulua 4. eta 6. atalean baino ez direla arautzen berriazko herri administrazioentzat (esangura hertsian), baina ez esleitzeko ahalmena duten erakundeentzat, kasurako, EITBrentzat.

Adierazitakoa gorabehera, administrazio baldintza berezien agiria kontratazio organoak onartzeari gagozkiola (EITBren lizitazioetan, agiri horri “baldintza juridikoen agiria” deritzogu), izapide hori gauzatu delako idazkirik jaso ez den arren, administrazio baldintza berezien agiri guztiek kontratazio organoaren eta lege zerbitzuaren onespina jaso dute argitaratu baino lehen, bi organo horietatik baitator argitaratzeko agindua eta, gerora, esleitzeko proposamena.

Arestian azaldutakoari kalterik egin gabe, Epaitegiak fiskalizatutako azken bi ekitaldietan aipamen berbera egiten dela ikusita, prozedurazko bi izapide horien gauzapena idatziz jaso da kontratazio espediente guztietan 2010eko urtarriletik aurrera (arauketa harmonizatuaren menpekoak izan ala ez).

- *“1,3 milioi euroko zenbatekoan esleitu diren 3 kontraturen administrazio baldintza berezien agiriak (1, 4, 5 zenbakidunak) ez dute behar bezala zehazten zein esleipen irizpide erabiliko den eta, hortaz, 134.2 artikulua urratzen dute. Gainera, esleipenari buruzko txostenean ez da jasotzen proposamen teknikoa izeneko irizpidean eman den puntuazioa behar bezala bidezkoetzeko arrazoirik; beraz, SPKLren 135. artikulua xedatutakoa urratzen da.”*

EITBREN ALEGAZIOA III.1.1; 2.:

Epaitegiak bi (2) hutsegite aipatzen ditu hiru (3) espedientetan. Hutsegite horiek banaka aztertuko ditugu gertaera eta inguruabar desberdinei doazkielako.

Lehenik eta behin, Epaitegiak berriro dio hiru (3) espedientetan (hain zuzen ere, 1, 4, 5 zenbakidunetan) ez direla “*behar bezala*” zehaztu balioespen irizpideak. Hori horrela, ezinbestekoa dugu aipatutako espedienteetan ezarri ziren irizpideak begiratzea, behar bezala zehaztu zirela arrazoitzeko.

Epaitegiak hutsegiteak antzeman dituen hiru espedienteetatik lehenengoari (1 zenbakiduna) dagokionez, esan behar da horren xedea “*ile apainketa eta makillaje zerbitzua Miramonen*” kontratatzea zela, eta espediente horren inguruan (1 zenbakiduna) III.1.1.3 atalean azaldutakoa arrazoitzen dugu berriro honako honetan.

Bigarren espedientea (4 zenbakiduna) dela eta, Epaitegiak hutsegitea antzeman zuen “*telefono bidezko arreta, harrera, azafatak eta chyron operadoreak*” deritzon zerbitzuaren kontratazioan. Honako honetan ere berriro lotzen gatzazkio espediente horren inguruan (4 zenbakiduna) esandakoari III.1.1.3 atalean.

Azkenik, hirugarren espedienteetan (5 zenbakiduna) Epaitegiak lehen aipatutako hutsegitea antzeman zuen “*erosketa, finantza eta GGBBei buruzko aholkularitza*”



zerbitzu espezializatuak” izeneko kontratazioan. Horri dagokionez, proposamenak balioetsi eta eskaintza ekonomiko onuragarriena erabakitzeke xedez, baldintza teknikoaren agirian zehaztutako balorazio irizpideak ondokoak izan ziren:

Proposamen ekonomikoa 50 puntu

Proposamen teknikoa 50 puntu

Giza baliabideen politika (15 puntu)

Laneko metodologia (10 puntu)

Zerbitzua emateko baliabide teknikoak eta giza baliabideak (10 puntu)

Talentuaz ohartzea (10 puntu)

Beste alderdi tekniko batzuk (5 puntu)

EITBren iritziz, irizpide horiek guztiak behar bezala zehaztu eta garatu ziren baldintza teknikoaren agirian. Horren erakusgarri dugu lizitazioa burutzeko zuzenketa. Hala eta guztiz ere, Epaitegiak aipatzen duen “nahikotasun eza” aintzat hartuta, EITBk Epaitegiaren irizpenak kontuan hartuko ditu etorkizuneko lizitazioetan.

Azkenik, balorazio txostenean esaten den legez, argitu behar dugu hemen esandako irizpideak baino ez zirela baliatu proposamenak balioesteko.

- *“2 espedienteren kontratuak (1, 4 zenbakidunak), 1 milioi euroko zenbatekoan esleitutakoek, ordainsari aldagarria eta arduraldi osagarriko orduak dakartzate, baina irizpide horiek ez ziren administrazio baldintza berezien agirietan jasotzen; beraz, SPKLren 26.2 artikulua urratzen da.*

EITBREN ALEGAZIOA III.1.1; 4.:

Hala da, Epaitegiak dioen moduan, bi (2) espedienteren kontratuak (1 eta 4 zenbakidunek, hain zuzen ere) hasiera batean administrazio baldintza berezien agirian jasota ez zeuden ordainsari aldagarria eta arduraldi osagarriko orduak zekartzaten. Inguruabar hori jazo da bi espedienteak izapidetu zirelako prozedura negoziatuaren bitartez –lizitazioa argitaratu zenean indarrean zeuden kontratazio jarraibideen eskuliburuaren 6. klausulak arautzen duenarekin bat etorri—. Hori dela eta, kontratuaren behin betiko baldintza batzuk agiri egokiak argitaratu eta gero ezarri ziren, hau da, lizitzaileek proposamenak aurkeztu ondoren.

Horrela, lizitazioa argitaratu zenean indarrean zeuden kontratazio jarraibideen eskuliburuaren 9. klausularen b atalak arautzen du, SPKLren 153. artikuluan eta hurrengoetan xedatzen denarekin bat etorri, *“prozedura negoziatuaren bidezko izapidetzea publikitatearekin”*:



“Hala badagokio, aurkeztutako eskaintzei buruzko informazio osagarria eskatu ahal izango du sozietateak eta, gainera, enpresa eskaintzaileekin negoziatu ahal izango ditu kontratuaren baldintzak, kontratazioaren nondik norakoak zehazten dituzten agirietan ezarritakoari jarraiki.

Negoziazioak dirauen bitartean, kontratazio organoak zainduko du eskaintzaile guztiak tratu berdina jaso dezaten eta ez du diskriminaziozko informaziorik emango eskaintzaile batzuek onura har dezaten saihesteko.”

Bi kasu horietan, publizitate, lehia, gardentasun, isilpekotasun, berdintasun eta diskriminazio ezako abiaburuak modu egokian bermatu ziren eta prozedura negoziatuaren aldi osoan bete ziren, espediente egokietan gordetako agirietan egiaztatzen den bezala.

Arestian esandakoari kalterik egin gabe, bidezko da esatea Kontratazio Jarraibideen eskuliburu berria 2009ko abenduan onartu zenetik, prozedura negoziatuaren erabilera bigarren mailako prozedura bilakatu dela.

- *“Administrazio baldintza berezien agiriek ez dute behar bezala zehazten kontratuaren xedea 2 espedientetan (2, 4 zenbakidunak, 1, 2 milioi euroko zenbatekoan esleitutakoak); beraz, SPKLren 74. artikulua urratzen da”.*

EITBREN ALEGAZIOA III.1.1; 5.:

EITB ez dator bat Epaitegiak adierazitako kontratazioaren helburuaren zehaztapen ezarekin, 2 espedienteri dagokienez (2, 4 zenbakidunak), haien baldintza agirietan egindako deskribapena ikusita.

Hain zuzen ere, Epaitegiak adierazitako espedienteetako lehenengoaren baldintza teknikoen agiriak zehatz-mehatz azaltzen du horniduraren xedea, ondoko deskribapena ematen duela:

A sorta:

- 8 kamera kate EFP konfigurazioan, SDDSI SMPTE 259M eta HD-SDI SMPTE 292M sistemekin bateragarriak.
- 1 eragiketa eta konfigurazio zentralizatuko panel eta banaguneekin lotzeko behar diren osagarri guztiak (beharrezkoa balitz, kameraren komandoen unitate nagusia ere bai).
- 8 eragiketa edo urrutiko kontroleko panel, kamera kate bakoitza doitu eta konfiguratzeko, eta banagunearekin lotzeko behar diren osagarri guztiak.



B sorta:

Ondoko tresna optikoak hornituko dira, Broadcast EFP konfigurazioan eta HDTV kalitatedunak:

- 2 Objektibo angeluar
- 4 Objektibo (bitartea: 14 / 18x)
- 3 Objektibo (bitartea: 20 / 24x)
- 1 Teleobjektibo (bitartea \geq 40x)

Azaldutako hornidura zerrendaz gain, baldintza teknikoen agiriak zehaztasun handiz deskribatzen zituen hornitu beharreko elementu bakoitzaren ezaugarri teknikoak.

Epaitegiak aipatutako bigarren espedienteari dagokionez, esan behar dugu baldintza teknikoen agiriak honela deskribatzen zuela kontratazioaren xedea:

- Telefono bidezko arreta zerbitzua
- Harrera zerbitzua
- Harrera eta telefono bidezko arreta zerbitzuko langileek jarduerari lotutako beste edozein eginkizun gauzatuko dute, kontratugileak unean-unean adierazitakoaren arabera.

Arestian esandakoari kalterik egin gabe eta Epaitegiak adierazitakoa aintzat hartuta, EITBk ahalegin handiagoak egingo ditu ildo horretan.

- *“Behin betiko bermea kontratua sinatu ondoren jarri zen espediente batean (4 zenbakiduna, 619.935 euroko zenbatekoan esleitutakoa); beraz, SPKLren 135.4 artikulua urratu zen”.*

EITBREN ALEGAZIOA III.1.1; 6.:

Inguruabar hori gertatu zen esleipenaren hartzaileak kontratua sinatu baino lehen aurkeztutako bermeak ez zekarrelako ez formatua, ez testua, EITBk eskatutako eran.

Hori dela eta, esleipen hartzaileari eskatu genion hutsa konpondu eta hasieran aurkeztutako bermea ordeztuko. Lizitatzailerak eskatutakoa bete zuen kontratua sinatutako data igarota.

Hala ere, kontratua sinatu baino lehen, EITBk eskura izan zuen behin betiko bermea, loteslea eta legez egikarigarria.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III.1.2 ATALA. ARAUKETA HARMONIZATUAREN MENPEAN EZ DAUDEN KONTRATUAK

- *“Kontratatzeko jarraibideak ez dira onartu lege zerbitzuaren aurretiko txostenean funtsatuta; beraz, SPKLren 175. artikulua xedatutakoa urratzen da”.*

EITBREN ALEGAZIOA III.1.2; 1.:

Epaitegiak hutsegitetzat jotzen du Kontratazio Jarraibideen eskuliburuaren gaineko aurretiko txostenik egin ez izana lege zerbitzuak. Alabaina, SPKLk derrigorrean bete beharreko izapide gisa ezartzen du “estatuko sektore publikoarentzat” eta, halakoetan, aurretiko txostena Estatuko Abokatutzak egin behar du.

Hala eta guztiz ere, esan beharra dago lege zerbitzuaren idatzizko agiririk ez daukagun arren, kontratatzeke jarraibideak zerbitzu horrek egin zituela eta, horregatik, aipatutako izapidea eta izapide horren helburua baliozkotasunez bete zirela.

- *“Arauketa harmonizatuaren menpean ez dauden 4 espedienteren berrikuspenean, hutsegite batzuk antzeman dira. Hutsegite horiek SPKLren 121 eta 175. artikuluek xedatutakoak urratzen dituzte”.*

EITBREN ALEGAZIOA III.1.2; 2.:

Arauketa harmonizatuaren menpean ez dauden 4 espedienteren azterketan, Epaitegiak dio hutsegite batzuk antzeman dituela. EITB ez dator bat irizpen horrekin eta horren zergatiak azalduko ditu ondoko lerrootan Epaitegiak adierazitako hurrenkerari jarraiki.

- *“Dekoratuentzako arotzeria lanen zerbitzuen inguruko espedientearen –aleko prezioen arabera emanda eta 2009an gauzatuta 186.195 euroko zenbatekoan–, baldintza agirian jasotako irizpide guztiek ez dute zuzeneko loturarik kontratuaren xedearekin; beste alde batetik, ez dago jasota esleipen hartzailearen agiri juridikorik eta ez da publizitaterik egiaztatu kontratugilearen profilean”.*

EITBREN ALEGAZIOA III.1.2.AZPIATALA; 2.:

Hizpide darabilgun kontratua 2008ko abenduaren 11n esleitu zen eta, beraz, aurretiaz fiskalizatutako ekitaldi bati dagokio. Balorazio irizpideen eta kontratuaren helburuaren arteko harreman zuzenik eza dela eta, EITBk emandako iritzari eusten dio eta, bere iritziz, aipatutako espedientearen baldintza teknikoan agirian ezarritako irizpideek egiazko eta zuzeneko lotura zeukaten kontratuaren xedearekin. Hain zuzen ere, eskaintza ekonomiko onuragarriena erabakitze aldera, espediente horren baldintza teknikoan agirian ezarritako irizpideak ondokoak izan ziren:



- *Eskaintza ekonomikoa % 50*
- *Lan metodologia % 25*
- *Bezeroaren beharrezanezi erantzuteko denbora. Erabilgarritasuna % 15*
- *Hobekuntzak % 5*
- *Deskontuak urteko fakturazio bolumenaren arabera % 2,5*
- *Publizitate ekarpenak gure hedabideetan % 2,5*

Honako hornidura kontratu honen baldintza esanguratsuenetako bat “eraginkortasuna ” zen eta beste kontratu batzuetan bigarren mailako irizpideak izan daitezkeen alderdi batzuk, hala nola, zerbitzua emateko epea, antolaera edo/eta lan antolaera, fakturazioaren arabera deskontuak –SPKLren 134.1 artikuluan bertan araututakoak– baziren funtsezkoak kontratu horretan proposamen ekonomiko onuragarriena zehazteko, aurkeztu ziren guztien artean.

Kontratatuzaileen profileen argitaratzeari dagokionez, txosten honen II.1.1.1 ataleko alegazioan esandakoari lotzen gatzaizkio.

- *Klimatizazio instalazioak handitzeko espedientean (586.101 euroko zenbatekoan esleituta eta 2009ko ekitaldian gauzatuta 312.921 euroko zenbatekoan), baldintza agirian kaudimen irizpideak jasotzen dira. A sortari dagokionez, beste eskaintza batzuk eskatu ziren eta eskaintza horiek alderdi kualitatibo nahiz kuantitatiboari eragin zieten, 27.004 eta 100.811 euro arteko beherapena baitzekarten.*

EITBREN ALEGAZIOA III.1.2.AZPIATALA; 2.:

Beste alde batetik, Epaitegiak aipatzen dituen A sortari lotutako alderdi kualitatibo eta kuantitatiboan aldaketari gagozkiola, esan beharra daukagu “aldaketa” horrek ez zuela inola ere sorrarazi SPKLren 202. artikuluan eta hurrengoetan araututa dagoen aldakuntzarik. Bada, baldintza batzuk aldatu ziren espedientea lizitatzeko erabili zen prozedura negoziatuaren barruan izandako tratuen ondorioz.

Aurrekoa dela eta, gauzak behin eta berriz esateko asmorik gabe, III.1.1.4.a atalean jasotako alegazioan azaldutakoari lotzen gatzaizkio.

- *ETB1 eta ETB2 telebisten albistegietarako Bilboko plato berrien lanen espedientean, 2009an esleituta eta gauzatuta 120.000 euroko zenbatekoan, eta hiru sortatan lizitatuta (plato bakoitzaren muntaia, diseinua eta lanaren gauzapena), lanaren gauzapena eta muntaia diseinuaren esleipendunarentzat gordetzen da; baldintza horrek zaildu egiten du eskaintza ekonomiko onuragarriena hautatzea.*



EITBREN ALEGAZIOA III.1.2.AZPIATALA; 2.:

Hasteko, irizpen horri dagokionez, kontratazio eta gastu publikoa arteztu behar duten eraginkortasun eta eragingarritasun abiaburuei jarraiki, aipatu behar dugu aurkeztutako proposamenak beharizan tekniko eta eraginkortasun premiei erantzun ziela SPKLk ezarritakoekin bat etorritz.

Kontratuaren xedearen berezitasun teknikoak direla eta, lizitazioan erabilitako formula legez eraginkorra zen eta eskaintza ekonomiko eragikorrenaren alde egin zen, publizitate, lehia, gardentasun, isilpekotasun, berdintasun eta diskriminaziorik ezako abiaburuei inolako kalterik eragin gabe.

III.2 ATALA. LANGILEAK

Azaldutakoak ez errepikatzearren, batetik, eta TVCP-HKEEren honako irizpena EITBk II.1.2 atalaren gainean egindako alegazioarekin hertsiki lotuta dagoenez, bestetik, “Alegazioak II.1.2 atala dela eta. Langileen kontratazioa” izeneko atalean esandakoari lotzen gatzazkie, izendapen askeko zuzendaritzako langileei dagokienez eta, TVCP-HKEEk esandakoaren ildoan, aldi baterako kontratazio era jakin batzuk erabiltzeko gomendioari dagokionez. Azkenak, atal horretan adierazi dugun moduan, zalantzazkoak lirateke legearen ikuspegitik. Ez dugu hemen berriro azalduko eta atal horretan emandako zehaztapenei lotzen gatzazkie.

III.2.1 ATALA. BURUTZAK

- *“Ez da irizpide objektiborik ezarri burutzako lanpostuak balioetsi eta horien ordainsariak erabakitzeke. Bada, zuzendarien esku geratzen da lanpostu horien balioespena, ordainsariak eta osagarriak erabakitzea. Horrez gain, kontratazio honetan ez dira lanpostuaren ezaugarriak jasotzen, ez da egindako balioespena ere.*

Burutzako lanpostuen ezaugarriak zehaztu eta haiei lotutako balioespen irizpide objektiboak ezarri behar dira, lanpostuok betetzeko eskatzen diren betekizunen arabera, hala nola, titulazio maila, jakintza teknikoa, zailtasuna, erantzukizuna eta prestutasuna.”

EITBREN ALEGAZIOA III.2.1:

Burutzako lanpostuak betetzeko eskakizunak balioetsi eta lanpostuoi esleitzen zaien ordainsariari dagokionez, aurreko urteetan egindako alegazioei eusten diegu. Izendapen askeko zuzendaritzako langileak direnez, hitzarmen kolektiboaren eragin esparrutik kanpokoak, ezin da “mailaketarik” edo antzeko balioespenik erabili lanpostu horien ordainsaria esleitzeko. Hala, gure iritziz, burutza bakoitzaren ezaugarri berezietan (lanpostuaren edukia, egitura hierarkikoaren barruko maila, prestutasuna...) oinarritu behar da ordainsaria esleitzeko irizpidea.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Edonola ere, esan behar dugu kidego horren ordainsarien zenbatekoa erakundearen zuzendaritza nagusiko kargudunentzat eta gainerako goi kargudunentzat araubidez ezarritako ordainsarien zenbatekoa baino txikiagoa dela eta barne koherentziari eusten diola erakundearen egitura hierarkikoaren arabera.

III.2.2 ATALA. ERANTZUKIZUN BEREZIKO OSAGARRIA

- *“Komeniko litzateke irizpide objektiboz balioesteko sistema eratzea eta egun indarrean dauden osagarriak berrikustea eta, gero, osagarriok emateko arrazoiak berretsi edo ezestea. Bestetik, egungo kategoriak berrikusi eta azken aldian gertatzen diren egoerei egokitu beharko litzaizkieke, nahiz eta osagarria finkagarria ez den.”*

EITBREN ALEGAZIOA III.2.2:

Erantzukizun bereziko osagarria zuzendaritzak hautatutako langile batzuei esleitzen zaie. Osagarri horren definizioak dioen moduan, antolakuntza ahalmena baliaturik, zuzendaritzak erantzukizun bereziko eginkizuna edo egitasmoa uzten du langile horien esku, betiere langileon lanbide kategorian edo hitzarmen kolektiboan ezarritako baldintzetatik landa. Horren ondorioz, ezin da prozedura estandarizaturik ezarri, ezta baremorik ere, inguruabar horiek arautzeko; are gutxiago, ezin da prozedurarik ezarri alde aurretik eta modu automatikoz ardura hartu beharko duen langilea identifikatzen duenik. Izan ere, gertaera bakoitzaren ezaugarri berezien arabera esleitzen da erantzukizuna: dena delako proiektuaren beharrianak, ardura emandako langilearen gaitasunak edo trebetasunak...

III.2.3. ATALA. GORAGOKO MAILAREN OSAGARRIA

- *Azken lerroaldearen amaierako oharra: “... Hala ere, izaera finkokoei dagokienez, ez da osagarria esleitzeko inolako balioespenik jaso.”*

EITBREN ALEGAZIOA III.2.3:

Aurreko atalean esandakoak dagoen-dagoenean balio du “goragoko mailaren kategoria” izeneko osagarriarentzat, aurrekoak bezala, izaera ez-finkagarria baitauka zuzendaritzak lan edo eginkizun bereziak gauzatzeko hautatzen duen langileari dagokionez. Nolanahi ere, kasu honetan ezin da hitz egin soldataren osagarriaren baremazio edo zenbatespenari buruz, EITBren eta haren sozietateen hitzarmen kolektiboek argiro zehazten baitute horren zenbatekoa, honela: langilearen beraren lanbide kategoriaren eta goragoko lanbide kategoriaren arteko soldata aldea. Horren ondorioz, hitzarmen kolektiboak zehazten du osagarri horren zenbatekoa.

Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren txostenak jasotzen ditu hitzarmen kolektiboetan gai horri buruz ezartzen direnak, baina ez du hutsegiterik, irregulartasunik edo hobetu beharreko alderdirik aipatzen. Bestela, azken lerroaldearen amaiera aldean ondoko ohar hau dakar “...izaera finkokoei dagokienez, ez da osagarria esleitzeko inolako balioespenik



jaso". Ez gatoz bat iruzkin horren helburuarekin: osagarri hori modu iraunkorrean jasotzen duen kidego bat badago, salbuespenez, zuzendaritzak uste duelako osagarri hori ematen hasi zenetik badirautea goragoko kategoria bidezko inguruabarrek. Beraz, osagarri horren justifikazioa azaldutakoa denez, ez da zertan justifikazioa berretsi hilero-hilero.

Beste alde batetik, osagarri hori jasotzen duen langile kopuru handia dela eta, 223 langile hain zuzen ere, TVCP-HKEEK dioenaren arabera, argi utzi nahi dugu TVCP-HKEEK iradokitzen duen beharrezko aukera berdintasuna bultzatzen delako froga dela; izan ere, goragoko kategoriari dagozkion eginkizunak legez eta modu orekatuan banatzen direla zeregin horietan jardun ahal duten langile guztien artean.

III.2.4 ATALA. LANSARI ALDAGARRIA

- *"2009ko hitzarmenean jasotako ordainketa aldagarria, ekitaldiaren amaieran zenbakarriak eta neurgarriak diren helburuen betetze mailaren arabera, hilero-hilero ordaindu da soldata gordinaren % 0,5eko heinean; guztira 150.783 euroko zenbatekoa ordaindu da. Helburuak bete diren arren, ez da arrazoizkoa ordainsari hori ematea helburuak bete baino lehen."*

EITBREN ALEGAZIOA III.2.4:

Gai honi dagokionez, esan behar dugu aipatutako hileko ordainketa "konturako abonua" gisa hartzen zela eta ekitaldiaren amaieran erregularizatzen zela, egokia izanez gero, ezarritako helburuen betetze mailaren arabera. Ordainketa era hori ez da ohiz kanpoko enpresetan, helburuen araberrako ordainketa aldagarri dagokienez, eta baldintza horiei jarraiki hitzartu zen langileen ordezkarien parte hartzearekin.

Nolanahi ere, agerian utzi nahi dugu 2009ko ekitalditik aurrera EITB taldean ez dela gauzatu helburuen araberrako ordainketa aldagarri, ez beste edozein kontzepturengatik ere.

III.2.6 ATALA. MERKATARITZAKO KONTRATUAK

- *"Langile profesionalak eta/edo artistak kontratatzen dira merkataritzako kontratuen bidez, lan zehatzak egiteko, oro har, programak aurkezteko edo saioak prestatu, editatu eta errealizazio lanak egiteko, baina ez dago langileok hautatzeko prozedurarik. Hautaketa ETB, S.A. eta EI, S.A. erakundeen programazio eta zuzendaritzako arduradunen iritzira egiten da, hautatzeko ezaugarri eta irizpideak jasotzen ez dituzten probetan oinarrituta."*


EITBREN ALEGAZIOA III.2.6:

TVCP-HKEEK berak onartzen du publizitate, merezimendu eta gaitasun irizpide orokorrak ez zaizkiola ezargarri langile talde horri. Egiatan, irizpide horiek ezin zaizkie ezarri aipatutako langileei ondoko arrazoi hauengatik:



Profesional autonomoak: zerbitzu jakin bat emateko kontratatzen dira, baina ez da lan loturarik sortzen erakunde publikoaren eta kontratatutako profesionalaren artean; bada, lan harremana merkataritza izaera hutsezkoa da, eta hortaz, ezin dira erabili lan kontratuetakoa arauak, ezpada, obra eta zerbitzuen kontratazioetan erabiltzen direnak.

Artistak: itxuraz, TVCP-HKEE artistaren lan harreman berezia eta lehen aipatutako merkataritza harremana nahasten ditu, baina kasu biek izaera juridiko desberdina daukate eta, ondorioz, arauketa desberdinek artezten dituzte. Programak aurkeztu edo, hala badagokio, saioak prestatu, editatu edo haien errealizazioa egitea helburu duen artisten kontratazioak ezin die men egin publizitate, merezimendu eta gaitasun abiaburu orokorrei. Agerikoa da, baita gizarteak eta legeak onartutakoa ere, aurkezle horien hautaketa irizpide bereziz egitea, batzuetan ukiezin edo ez-materialez, hala nola, aurkezle horren ospea eta sona, telebista edo irrati saio bati ematen dioten balio erantsia... parametro horiek ohikoak ez diren maila profesional eta mediatikoetan kokatzen dituzte aurkezleak eta, aurkezle jakin bat egoteak saioaren arrakasta bermatzen ez badu ere, haren "*intuitu personae*" izaerak berez bidezkatzen du aurkezlea zuzenean kontratatzea. Gizarteak eta legeak onartzen dituen kasu horietan, ez da egokia hautaketa probak egitea, azterketak edo antzekoak gainditu beharraz, telebistako pertsona ezagunak aurkezle gisa kontratatzeke. Gure aburuz, haien izenik ere ez da aipatu behar alegazio honetan, baina jende orok ezagutzen ditu.





BOTO PARTIKULARRA, HKEE-REN LEHENDAKARIORDE JOSÉ MIGUEL BONILLA JAUNAK ETA MARIANO GARCÍA KONTSEILARI JAUNAK “EUSKAL IRRATI TELEBISTA-EITB ZUZENBIDE PRIBATUKO ENTE PUBLIKOAREN ETA MENDEKO DIREN SOZIETATEEN” FISKALIZAZIO TXOSTENARI JARRITAKOA. 2009.”

HKEEK bere ibilbideari hasiera eman zionetik izan du fiskalizazio-gai EiTb Taldearen jardura, eta bereziki, langileen kontratazioa.

Fiskalizazio lan horietan hainbat ez-betetze azaleratu ziren baina HKEEK ez dio inoiz legez kontrako iritzi Enteen eta bete sozietateen zuzendaritzako langileak izendatzeko indarreko prozedurari.

HKEEren iritzia txostenak onetsi ahala osatu eta gorpuztu da, ondotik zerrendatuko ditugun irizpenekin:

1. HKEEK sei fiskalizazio txosten mamitu ditu (ikus 1. eranskina) eta horietan legea betetzen dela aztertze al nagusietako bat “langileria” izan da.

Txosten hauetan guztietan, HKEEK iritzi dio EITB Taldeak bere sortze legearen arabera (5/1982 Legea) ezarri behar duen prozedura honako hau dela.

- a. Legebiltzarrak izendatutako Administrazio Kontseiluak organigrama bat onetsiko du, zeinetan zuzendaritza langileen lanpostuak definitu eta horiek betetzeko moldea zehaztuko den (36. art.).
- b. Zuzendari nagusia Legebiltzarrak erabateko gehiengoarekin izendatzen du eta honek, Kontseiluak onetsitako organigraman zuzendaritza langile modura bereizi diren postuetarako pertsonak izendatu ahal izango ditu, betiere profesionaltasun irizpideak baliatuta (16.f artikulua).
- c. EiTb Taldeko plantillako gainerako lanpostuak berdintasun, publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak gordez beteko dira (47. art.)
- d. EiTb Taldeko sozietate eta enpresen zuzendariak Goi Kargudun izaera dute (130/1999 Dekretua).

2. HKEEK egoki iritzi dio prozedura horri eta inoiz ez du auzitan jarri horren legezotasuna.

eranskinean azaleratu diren ez-betetzeak prozedura horren ez-betetze zatizko edo erabatekoak dira, osotasunean legezkoa dela inoiz zalantza egin gabe. (ikus 2. eranskina).

Honen guztiaren ondorioz:

- a. HKEEK beti esan du Zuzenbide Pribatuko Ente Publikoetan goi kargudun diren zuzendariak daudela eta goi kargudun ez den zuzendaritzako langileria.
- b. HKEEK beti iritzi dio legezko EiTbren zuzendariak egoki irizitako pertsonak izendatzeari, betiere profesionaltasun irizpideak baliatuta, Administrazio Kontseiluak organigraman modu horretara bereizten dituen lanpostuak betetzeko.



Ez da inoiz, eskuartean dugun txosten hau arte, desadostasunik izan txostenak onetsi dituzten osoko bilkuretan. Osoko bilkura horietan esku hartu duten Kontseilari guztiek legezko iritzi zioten 5/1982 Legetik eratorritako prozedurari, inongo salbuespen edo gomendiorik egin gabe.

Izatez, Entea eta mendeko sozietateak, HKEEK horien jardueraren gaineko iritziak izan duen bilakaeran ikus daitekeen legez, hobetzen ari dira jokamoldea eta 2008ko txostenean, irregulartasun bakarra Administrazio Kontseiluari izendapena gauzatu ondoren jakinaraztea izan zen. Enteak txosten horri jarritako alegazioek erakusten dute irregulartasun hori zuzendu dutela 2009an eta honenbestez, onartu egin dutela HKEEK behin eta berriz zuzendutako irizpidea.

3. EITB Taldearekin lotutako fiskalizazio lanen plangintza memorandum guztietan, Osokoak aho batez onetsi dituenak, fiskalizazio eremuan barne hartu da 5/1982 Legeak finkatzen duen prozeduraren betetze maila. Ez da sekula arrisku-eremutzat jo prozedura bera. Eta hau gertatzen da baita 2009ko fiskalizazio plangintzaren memorandumean.

4. Ez da legegintzan inongo aldaketarik izan, ezta EITB Taldearen prozeduran ere, HKEEK 2008an eta lehenagoko urteetan legezko jotzen zuen hari berari 2009an ez legezko irizteko. Honako hau izenpetzen dugun kontseilariok ez dugu irizpide aldaketa hori justifikatuko duen inongo txostenik ezagutzen. 1998ko txostenetik 2009ko honako txosten hau bitartera arte langileen atala aztertu duten HKEEren letratuek beti iritzi diote legezko EITB Taldeak baliatutako prozedura.

5. 2009ko behin-behineko txostenean, Osokoak, irizpide aldaketa arrazoitu gabe, langileen kontratazioari buruzko iritzia atalean ustez legezatasunaren ez-betetzea finkatzen duen paragrafoa barne hartu zuen. Paragrafo honek balizko ez-betetzea argitu eta zehaztu beharrean nahasmena sorrarazten du, izan ere profesionaltasunaren araberako kontratazioak lehenagotik kontratu loturarik ez izatearekin eta kontratu motarekin lotzen ditu eta 5/1982 Legearen 47. artikulua urratzen dela ondorioztatzen.

Bestetik, langileei buruzko gogoeten atalean hainbat iritzi barne hartu dira, HKEEK hasieratik egin dituen EITBren gaineko fiskalizazioen txostenetarik batean ere euskarritzen ez direnak.

Guztiz onartezin irizten diogu prozedura bat baleko bihurtu, aztertzen jarraitu, arrazoirik gabe iritzia aldarazi eta bi urteren buruan eta zuzentzeko aukerarik gabe denbora guzti horretan istilurik gabe legezko zena ez-legezko bihurtzeari.

Osokoak egindako irizpide aldaketak, argudio kontrajarria baliatuta, behar hainbateko arrazoirik gabe eralda dezake HKEEren jokamoldeak fiskalizazio-gai den entearen gainean sortu ahal izan duen fidantzia egoera juridiko jakin baten egonkortasunari dagokionez. HKEEren jokamoldeak fiskalizazio-gai den entearen gainean sortu duen konfiantza hori ez daiteke nahierara eralda.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Zuzendaritzako langileriari buruzko erreferentzia jakin bat legezkotasunaren iritziaren atalean barne hartzeko irizpide aldaketa onartuko bagenu ere (eta ez dugu onartzen), hori bera ez da koherentea, hautaketa prozesuaren edukia berdin-berdina delako; berebat, EITB Taldeaz besteko langileekin betetako organigramako 11 lanposturen betetze prozedura ez-legezko jotzea 47. artikulua ezargarri zaiolako -publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak betetzea eskatzen baitu- eta aldiz, organigramako 16 lanpostu plantillako langileekin betetzeko prozedurak ez dituela betekizun horiek berak gorde behar, guztiz kontraesankorra da. Gainera, kanpoko langileen 11 kontratazio horiek ez-legezkoak direla esan nahi bada, halakoxeak lirateke aurreko urteetako 39ak eta taldeko langileekin betetako 64ak.

Behar hainbateko arrazoiketarik gabe egindako irizpide aldaketa honek legezko fidantzia printzipioa urratzen du (Administrazio Publikoen eta Administrazio Prozedura Bateratuaren Araubide Juridikoaren Legea-APBaren 3. art.) eta hau hertsiki lotzen zaie fede on (APBaren 3. art.), segurtasun juridiko (Espainiako Konstituzioaren-EK 9.3 art.) eta botere publikoen arbitrariotasunaren debeku (EK 9.3 art.) printzipioei; eta horren indarrez, HKEEk, botere publiko den aldetik, ez dezake behar hainbateko arrazoirik izan ezean, 5/1982 Legeari jarraiki, langileen izendapenean baliatutako prozeduraren zuzentasunari dagokionez, bere jokamoldeak fiskalizatutako erakundean izan duen konfiantza desagerrarazi.

6. Fiskalizazio prozedura errepikariek (urterokoak) oinarrian dutena da fiskalizatutako urteaz lehenagokoetan balekoa zena, fiskalizazio-gai izan dela eta honenbestez, ez dela berriz esan behar. Prozedura hau 2009an eten da zuzendaritza langileen kontratazioari buruzko iritzi gehiengoarekin.

HKEEren osokoaren gehiengoaren iritzia 2009an, 1998 eta 2008 bitartean defendatutakoaz guztiz bestelakoa da.

Irizpide aldaketa adierazgarri honen ondorioz, Osokoak EITBren plantillan 2009an duen eraginaren berri emateko eskatzen du. 2009ko abenduaren 31n EITB Taldeak zuzendaritzako langileen 114 lanpostu zituen beteak profesionaltasun irizpideen arabera; horietatik 50 Taldeaz besteko pertsonak ziren eta gainerako 64ak, berriz, Taldeko plantillakoak (ikus 3. eranskina).

Behin Osokoak irizpidea aldatu duela, txostenak irizpide berriaren zergatiak eta hori EITB Taldearen likidazioari 2009/12/31n ezartzeak eragin ditzakeen ondorioak xehatu behar lituzke.

EITB Taldeak ez du 2009an langileen kontratazioa arautzen duen arautegia 2008, 2007 eta lehenagoko urteetan urratzen zuena baino gehiago urratzen. Izatez, are hobeto betetzen du. Osokoak egin duen iritzi aldaketak sorrarazi du soil-soilik 2009an legearen beste ez-betetze bat.

Eta datu horiek ez aipatzea, botere publikoen jardueran buru egiten duten printzipio orokorren aurkakoa ez ezik, oro har onartutako auditoria prozeduren aurkakoa ere bada.



Ondorioa Boto hau izenpetzen dugun kontseilariok ez dugu Osokoaren irizpide aldaketa arrazoituko duen eta Osoko honek 2008an legezko jotzen zuen hura 2009an ez-legezko jotzeko inongo txostenik baliatu, ez baita arau edo prozedurarik batere aldatu. Behar hainbateko arrazoirik gabe fiskalizazio-gai den entean sortutako konfiantza -5/1982 Legea ezarrita zuzendaritzako langileriaren izendapenean erabilitako prozeduraren zuzentasunari dagokionez- desagerrarazteko jokabidea onartzea botere publikoen jardueran buru egiten duten printzipioen aurka egitea da eta zehazki, egindako legezko fidantzia printzipioa urratzen du eta hau hertsiki lotzen zaie fede on, segurtasun juridiko eta botere publikoen arbitrariotasunaren debeku printzipioei.

Honegatik guztiagatik, gure iritzira, legea betetzeari buruzko II.1.2 6 atala eta langileriari buruzko III.2 eta III.2.1 ataletan jasotako paragrafoak kendu behar dira.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko ekainaren 4a



1. ERANSKINA

1998 EITB Taldearen obra, zerbitzu, hornigai eta langileen kontratazioa.

1999-2003 EITB Taldearen obra, zerbitzu, hornigai eta langileen kontratazioa.

2005 Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Autonomo, Zuzenbide Pribatuko Ente Publiko eta Sozietate Publikoen Kontuak.

2006 EAEren Erakundeen Administrazioa.

2007 EAEren Erakundeen Administrazioa.

2008 EAEren Erakundeen Administrazioa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

2. ERANSKINA. PROFESIONALTASUN IRIZPIDEEN ARABERA KONTRATATUTAKO KOPURUAREN BILAKAERA HISTORIKOA.

URTEA	KONTRATUAK abenduaren 31n
1991	69
1998	77
1999	93
2000	93
2001	93
2002	94
2003	108
2004	111
2005	111
2006	109
2007	119
2008	120
2009	114

Ez ditu Enteko eta Taldeko sozietateetako zuzendari nagusi lanpostuak besarkatzen.

Zehaztu ez diren urteetako daturik ez dugu.




Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

3. ERANSKINA. PROFESIONALITASUN IRIZPIDEEN ARABERA KONTRATATUTAKO LANGILERIA 2009/12/31-N

IZENDAPEN URTEA		KANP.	BARR.
2009	27	11	16(*)
2008	8	6	2
2007	25	11	14
2006	9	4	5
2005	1	1	-
2004	4	3	1
2003	2	1	1
2002	3	2	1
2001	3	3	-
2000	5	2	3
1999	16	6	10
1996	1	-	1
1991	1	-	1
1985	1	-	1
1984	1	-	1
1983	7	-	7
	114	50	64


(*) Aurreko urteetan jada zuzendaritza postuak betetzen zituzten 6 pertsona barne hartzen ditu eta 2009an izendatu diren 10.





ABREVIATURAS

CAE	Comunidad Autónoma de Euskadi.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
EITB	Ente Público de Derecho Privado Euskal Irrati Telebista.
EI, S.A.	Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A.
ETB, S.A.	Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A.
LCSP	Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público.
OPE	Oferta Pública de Empleo.
PCAP	Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.
RV, S.A.	Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A.
TGSS	Tesorería General de la Seguridad Social
TVCP/HKEE	Tribunal Vasco de Cuentas Públicas / Herri Kontuen Euskal Epaitegia.





I. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP/HKEE), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero, ha fiscalizado las Cuentas Anuales del Ente Público de Derecho Privado Euskal Irrati Telebista/EITB y de sus Sociedades dependientes correspondientes al ejercicio 2009.

La fiscalización correspondiente al ejercicio 2009 abarca los siguientes aspectos:

- Legales: el cumplimiento de la legislación vigente en materia de adquisición de bienes y servicios, personal y gestión económico-financiera.
- Contables: el sometimiento de la documentación financiera presentada a los principios contables que resultan de aplicación.
- El alcance del trabajo no incluye un análisis de la eficacia y eficiencia del gasto. No obstante, las deficiencias detectadas se detallarán en el epígrafe del informe denominado “Consideraciones sobre el sistema de control interno y procedimientos de gestión”.

El trabajo de fiscalización se ha desarrollado de acuerdo con los principios y normas de auditoría aplicables al sector público, realizándose aquellas pruebas selectivas, revisión de procedimientos y demás técnicas habituales de auditoría que se han considerado necesarias, en cada circunstancia, para soportar la opinión contenida en el informe, incluida la revisión de los papeles de trabajo que soportan la auditoría de las cuentas anuales efectuada por un auditor externo.

EITB, creado por ley 5/1982, de 20 de mayo, del Parlamento Vasco, y dotado de personalidad jurídica propia, ejerce las funciones que corresponde a la Comunidad Autónoma como titular de los servicios de radiodifusión y televisión, en el marco de las competencias que se asumieron conforme a lo dispuesto en el artículo 19 del Estatuto de Autonomía.

La gestión de los servicios públicos de radio y televisión se lleva a cabo a través de las sociedades creadas para ello: Euskal Telebista-Televisión Vasca, S.A./ETB, S.A., Eusko Irratia-Radiodifusión Vasca, S.A./EI, S.A., Gasteiz Irratia-Radio Vitoria, S.A./RV, S.A. y Eitbnet, S.A. (en adelante las Sociedades de Gestión).

EITB y sus Sociedades dependientes, de cuyas acciones es el único titular, se financian con cargo a los Presupuestos Generales de la CAPV y mediante los ingresos y rendimientos de las actividades que realicen, según establece el artículo 45.2 de la Ley 5/1982. Por su parte Eitbnet, artículo 12 de sus Estatutos, se financiará con los ingresos propios por el desarrollo de su actividad.

Durante el ejercicio 2007 se formalizó el contrato programa 2007-2010, que define los contenidos del servicio público de radiodifusión y televisión que el Ente tiene encomendados, concreta los objetivos que se incluyen en su Plan estratégico 2008-2011, los compromisos con la prestación del servicio público de radio y televisión, con la gestión del servicio y define una financiación estable a través de las aportaciones del Gobierno Vasco para compensar el gasto de explotación por actividades específicas, prestación de servicios e inversiones en activos reales y financieros para el Ente y sus Sociedades de Gestión.

II. OPINIÓN

II.1 OPINIÓN SOBRE EL CUMPLIMIENTO DE LA LEGALIDAD

II.1.1 ADQUISICION DE BIENES, SUMINISTROS Y SERVICIOS. (VER A.4)

1. Se han licitado sin la preceptiva publicidad en el DOUE los 5 contratos (números 1, 2, 3, 4, 5) sujetos a regulación armonizada, adjudicados por un importe total de 2 millones de euros, incumpliendo el artículo 174 de la LCSP. Tampoco se publicó, ni en el DOUE ni en el perfil del contratante, la adjudicación del contrato incumpliendo el artículo 138 de la LCSP.
2. No se indica el valor estimado objeto de la licitación en ninguno de los 9 expedientes analizados adjudicados por 3 millones de euros, incumpliendo el artículo 76 de la LCSP.
3. Se valoran criterios no relacionados con el objeto del contrato y/o aspectos técnicos que no figuran previamente en el PCAP, en 3 expedientes (números 1, 2, 4) adjudicados por 1,5 millones de euros, incumpliendo el artículo 134.1 y 2 de la LCSP.
4. Se han tramitado por el procedimiento negociado sin publicidad, seis expedientes de contratación de obras, ejecutados por importe de 833.003 euros y otros 10 de suministros y servicios por importe de 1,1 millones de euros, incumpliendo el principio de publicidad previsto en el artículo 175 de la LCSP.
5. Se ha prescindido de los procedimientos de adjudicación establecidos en la LCSP en la adquisición de bienes y contratación de servicios por importe 2,9 millones de euros, que individualmente considerados estarían sujetos a regulación armonizada.

II.1.2 CONTRATACIÓN DE PERSONAL

6. Si bien el art. 1.2 de la Ley 4/1996, que modifica el art. 16 de la Ley 5/1982, faculta al Director General a “nombrar con criterios de profesionalidad al personal directivo del ente público y de sus sociedades, notificando con carácter previo dichos nombramientos al consejo de administración”, no es menos cierto que no queda definida la figura del personal directivo.

Sin embargo, el art. 47 de la Ley 5/1982, señala que el personal del Ente Público y sus Sociedades Públicas se regirá por lo dispuesto en la legislación laboral (art. 47.1), aún cuando también determina que “la selección de personal para el Ente y sus Sociedades se hará mediante convocatoria pública y de acuerdo con sistemas basados en los principios de mérito y capacidad” (art. 47.2).

De acuerdo con el Decreto 130/1999, EITB tiene asimiladas a “Altos Cargos”, a cuatro personas y además establece el contrato de Alta Dirección obligatorio para dichos cargos.

En el ejercicio 2009 han accedido a puestos directivos funcionales 21 personas por aplicación del concepto de “profesionalidad” que se contempla en el art. 16 de la Ley de creación del ente modificado por la Ley 4/19996 antes citada.



Once de las 21 personas no tenían relación contractual previa con el ente ni figuran como Altos Cargos, a pesar de ello, han sido contratadas con contratos laborales fijos por lo que se incumple el art. 47 de la Ley 5/1982.”

II.1.2.1 Personal laboral temporal

7. La utilización de una bolsa de trabajo preexistente, y que no clasifica los méritos y capacidades de sus componentes, no garantiza , en la contratación del personal laboral temporal en 2009, el cumplimiento de los principios de mérito y capacidad, previstos en la Ley 5/1982.

Finalizada la OPE 2009 para el personal fijo de Eusko Irratia, octubre de 2010, la bolsa de trabajo para personal laboral temporal de Eusko Irratia ya está debidamente clasificada.

En opinión de este Tribunal, excepto por los incumplimientos que se detallan en los párrafos 1 a 7, el Ente y sus Sociedades dependientes han cumplido razonablemente en el ejercicio 2009, la normativa legal que regula su actividad económico-financiera.

II.2 OPINIÓN SOBRE LAS CUENTAS ANUALES

El artículo 45.2 de la Ley 5/1982, de creación del Ente Público de Derecho Privado Euskal Irrati Tebista/EITB determina que este y sus Sociedades dependientes, de cuyas acciones es el único titular, se financiarán con cargo a los Presupuestos Generales de la CAPV y mediante los ingresos y rendimientos de las actividades que realicen. Por su parte Eitbnet, artículo 12 de sus Estatutos, se financiarán con los ingresos propios por el desarrollo de su actividad.

En opinión de este Tribunal, las Cuentas Anuales consolidadas del Ente y sus Sociedades dependientes, expresan en todos los aspectos significativos la imagen fiel del patrimonio, de la situación financiera al 31 de diciembre de 2009, de los resultados de sus operaciones en el ejercicio, de sus cambios en el patrimonio neto y de los flujos de efectivo correspondientes al ejercicio terminado en dicha fecha.

HECHOS POSTERIORES

La Inspección de la TGSS, en julio de 2009, inició un expediente de requerimiento, con el objeto de fiscalizar el encuadramiento en el régimen especial de trabajadores autónomos de las personas que trabajan con contrato mercantil en EI, S.A. de Bilbao. La actuación inspectora, según requerimiento de fecha 24 de mayo de 2010, ha considerado probado que 46 contratos, principalmente redactores-locutores y técnicos, reúnen las características de trabajo dependiente por cuenta ajena en el ámbito de la organización y dirección de EI, S.A., con el carácter de contrato laboral sujeto al Régimen General, y que en consecuencia deben tramitarse como tales con carácter retroactivo y abonar la cotización correspondiente. A



partir de dicha fecha se firmaron los nuevos contratos con el carácter de laborales indefinidos, no fijos.

El importe a pagar por dichas cuotas, desde el 2 de setiembre del 2005, y que ha ascendido a 2,4 millones de euros, se ha abonado entre septiembre 2010 y diciembre 2011.

Asimismo, en febrero de 2010, se inició otra actuación inspectora similar sobre los trabajadores con contrato mercantil en Eusko Irratia de Donostia-San Sebastián. Como consecuencia de esta actuación se han abonado, en concepto de cuotas, 1,6 millones de euros.

III. CONSIDERACIONES SOBRE EL SISTEMA DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN

En este apartado se señalan tanto deficiencias que no afectan de manera relevante al cumplimiento de los principios que rigen la actividad económico-financiera, como aspectos procedimentales que se ponen de manifiesto para la mejora de la gestión.

III.1 CONTRATACION (VER A.4)

III.1.1 CONTRATOS SUJETOS A REGULACIÓN ARMONIZADA.

- No consta la aprobación de los PCAP por órgano competente, ni la existencia de informe jurídico sobre los mismos, incumpliendo respectivamente los artículos 121 y 25 de la LCSP.
- Los PCAP de 3 contratos (números 1, 4, 5) adjudicados por 1,3 millones de euros, no especifican suficientemente los criterios de adjudicación a utilizar, incumpliendo el artículo 134.2, y en el informe de adjudicación no consta motivación que justifique suficientemente la puntuación otorgada al criterio propuesta técnica, incumpliendo lo previsto en el artículo 135 de la LCSP.
- Los contratos de 2 expedientes (números 1, 4) adjudicados por 1 millón de euros, incluyen aspectos como retribución variable y horas de dedicación adicional, que no se contemplaban en los PCAP, incumpliendo el artículo 26.2 de la LCSP
